

A.T.V
8084



URUZUNO'tar P. M'en

❁ I P U I A K ❁



M. 18745
R. 9973.

A.T.V.
8084

URUZUNO' tar P. M'en



IPUIAK



LENENGO IDAZTIA



NEKETAKO AMA-BIRJIÑAREN IRARKOLAN.
IRUÑA'N.—1930.



Uruzuno'tar P. M. (G. B.)





ITZ AUREA

IRAKURLE: Euskelzale, izkuntz garbi uts beñizalea bakarik ba zera, garbi esango dizut, ez nafela zuregana. Akats asko, itz ez ezagun gutxi neregana arkituko dituzu ta. Zuk, euskera ikasle aufferatua zeranak, jakintsuen izkuntza leun, txukun ta landua bear dezu. Ni ez naiz mala ortara iristen.

Nere aitak txukundu ninduan bezelaxe nator. Ez diate pitxi zal bilatu ta landurik ezafi.

Ereka baztanean jaio, ta ereka inguruan dabilzan nekazari, arotz, argin, ermentari, ijito ta beste ez ikasi guzien izkuntz samur, ezezez jantzia nator. Oiek ezez ezagutuko naute beraz, ta beren kidekoari bezela abegi ona egingo al diate

Aspalditxotik zenbait sukalde, ardandegi ta sagardotegietan, amaika par gozo ta algara mardul aterazia naiz. Ez bai naiz beña. «Euskal Esnalea»'ren ta «Argia»'ren ofietan banatuak ibili dira, nik orain agertzen ditudan

ipuiak. Ortxe galduko ziraden betiko, nere aitaren adix-
kide batzuek, nere bila ibili ez balira.

Orain biltzaleak bi gauza nai dituzte nerekin. Nere
aita, nere mamien egile Ufuzuno'tar Pedro Migel Jaun
argi ta euskaltzale sutsua ezagutuazi ta oroigari dala
erakutsi. Ez nere aita dalako, baña Euskeltzaleak zer-
bait zor diotela iruitzen zait.

Beste nere egikizuna da, euskaldun guzien artean
irakurtzeko zaletasuna piztea. Ortarako gauz ezez ta
atsegiñak bear dira oraindik. Gauza zaí ta landuaz as-
peltu ta nazkatu egiten baitira euskaldun geienak. ¡Lo-
tsagafia bada ere, egia ezin ukatu!

¡Euskalduna! Zure eskuetan dago nere izatea. Zuk
ondo artzen ba nazu, nere atzetik etofiko dira nere bes-
te anaiak. ¡Asko bai gera!

Eskatu bada biltzaleari, bialtzeko nere ondoren-
guak. Agur.

Mendaro, 1930 Ufia'n.



Oaña: Egilearen beñi guziak ematea izango zan emen egokiena, baña
laburtasunari begiratu ta, gai ofetzaz ipintzen ditugu bakarik Iriondo-tar
Toribio Jaunak Egileari bere ure eztaietan egin zizkan ondorengo bertso
oiek.

BERE JAUPARITZAKO UÑEZKO
EZTAIETAN DON PEDRO MI-
GEL URUTZUNO JAUNARI

I

Garagartza-Mendaro
Kilimon ertzean,
Biotzez maite degun
Txoko txukunean,
Urileko bigarren
Gaurdan egunean,
Mila bederatzi eun
Ogeigarrenean,

II

Pozez adixkideak
Emen gera batu,
Uñezko eztaigoak
Nairikan ospatu;
Berogei ta amar urte
Dirala gertatu,
Meza zenduenetik
Lenbizi opatu.

III

Ume umetatikan
Zure biotz dana
Jainkoari zendukan
Oparo emana:
Elgoibar ta Lasakan
Ezagun zinanana,
Apaiz eginik igo
Zinan Jesusgana.

IV

Leen eritegian
Gaxoak zaindutzen,
Gero Txadon aundian
Arimak argitzen:
Elgoibar'tik zinana
Mendarora aldatzen,
Abelge ta aberatsak
Dituzu laguntzen.

V

Egaraz goi-goitikan
Jatxi zinan noski,
Ala iduritzen zait
Beñepein neroni:
Goiz izanak bezela
Eginikan argi,
Ekaitzetan zerala
Askoren gidari.

VI

Santutasun osoa
Irakatsi dezu,
Lekaimeak zerura
Zuzendu dituzu:
Zaren eta gazteen
Ardura daukazu,
Mutil eta neskatxen
Aingeru zera zu.

VII

Guztiak ekartzeko
Zeruko bidera,
Gogoz lan egitea
Da zure jokera:
Ardi galduen bila
Jesus'en antzera,
Zintzo erakutsiaz
Santuen jaiera.

VIII

¿Nork agertu ditzake
Zure otoi ziñak,
Eta egin dituzun
Egintz alegiñak?
Batzuetan zirala
Gozoro atsegiñak,
Eta bestetan beriz
Negartsu samiñak.

IX

Beti gau eta egun
Jainkoari deika,
Txiki t'aundi guztiak
ditzala bedeinka:
Su-leizera ez ditezen
Erori amilka,
Zuk askatu dituzu
Ortikan amaika.

X

Liburu txit edeñak
Dituzu idatzi,
Donokira dezula
Bidea erakutsi:
Olerki alaitxuxauak
Jañirik egoki,
Jesusen biotz eta
Ama maiteari.

:: 6 ::

XI

Ipuiñ politak ere
Idatzi dituzu,
Amaika pañe gozo
Eragin diguzu:
Patxi Motzen lañiak
Esan dizkigutzu,
Triste geudenean zuk
Pozkida gaituzu.

XII

Goiko Jaunak zaitzala
Esker onetsitu,
Eta luzaroetan
Gurekiñ alkartu:
Eta ditzazunean
Eun urte artu,
Gotzonak zaitzatela
Zorioneratu.

XIII

Bitartean gurekiñ
Bizi zaitez emen,
Donokira bidea
Guri erakusten:
Egun zoriontsua
Danean etortzen,
Zurekiñ joango gera
Donokira zuzen.

XIV

Urutzuno Salegui
Kepa Mikel Jauna,
Agertu nai dizugu
Gure maitasuna:
Opatuaz biyotzez
Orain osasuna,
Gero beti betiko
Zoriontasuna.

KILIMONGO ITURĪ EDO ÈREKA

I

Mendaro dezu ama
ta jayotefia,
arkaitz baten azpitik
beñiz jatoría:
iru zulotatikan
dator itufia,
Pliniok berak digu
ematen beña.

II

Egia dan bezela
nai dizut aitortu,
zenbat aldiz oi zera
osoro agortu:
gogoak dizunian,
atzera agertu,
bazteñak ez ditezen
guziro legortu.

III

Esan ezin adinbat
ur presko garbia,
kristal piñena ez da
zu bezin argia:
zure bañuak dute
pizkortzen nagia,
askorentzat legoke
emen lantegia.

IV

Ordu laurden bateko
bidea ibaira
dezula, bitartean
lau érot badira:
guziak Kilimonen
uraren begira,
amabi ari dabiltz
jira eta bira.

V

Érotaz gañera len
zinduzen bi ola,
aurena Lasalde ta
gero Gabiola:
saritan aditu det
jendeak diola,
Jaunak ur-oni eman
indaña diola.

VI

Éritarentzat dira
zure probetxuak,
¿zer moduz ditzakete
Mendaron atxuak
iñun ezin bezela
egin bizkotxuak?
¡Grazi au du zure ur
garbi preskotxuak!

VII

Piñak dira mantentzen
dituzun añaiak,
aiñ edefak aingirak

nola amofaiak:
arantzan dizkitzute
bilatzen efaiak,
lan onetan badira,
Mendaron ernaiak.

VIII

Diote Kilimongo
arbolen itzala
biziya luzetzeko
agitz ona dala:
esan dedan kontuan,
baldin balitz ala,
uste det luzaruan
biziko naizala.

IX

BaÑu etxe bat emen
al baledi egin,
guziontzat izango
litzake atsegin:
bizia luzatzeko
egiñaz al egin,
¿nork ez luke etofi
naiko urtian bein?

X

Arkaitzak ematen du
geyenian samur,
efi guzi-guzian
bear ainbat dan ur:
ibaira eldu arte
or dijua mur, mur,
esanaz: Ni ba nua.
¡Agur, agur, agur!

XI

Zure befi baleki
¡Kilimon! munduak,
uréz beterik emen
lirake manduak:
egiteko jauregi
eder, apainduak,
aurki dituzu bada
danak zuganduak.

XII

¡Nork daki zoriona
gizonak nun duan!
Beti dago txit giro
zure ur onduan:
udaran presko presko
ta epeltxo neguan,
Kilimonen parerik
ez dago munduan.

* *
* *

Ez dago zu partzeko
mundu ontan urik:
ez eta pagatzeko
bear dan dirurik.

.....



I J I T O A K

Juezak:—¿Orain ere emen Pantxo? .

—Bai, Jauna: ekañi egiten gaituzte ta.

—Eta ¿zer?

—Beori ikusi naian ere ba geunden ta...

—¿Zer dala ta?

—Badaki ba, aspalditxoan ikusi ez ta, kariñoare badiogu ta, bedoñek ere izango digula ta...

—¿Eztezute ba esaten, juezak generala zuen etsairik andienak?

—Ez, Jauna: baizikan legiak, batez ere gaizki jafirik daudenian. Juezak, ez.

—¿Lege askotxo ote dira gaizki jafiak?

—Guk nai baño geiago.

—Eta ¿nola zoazte oraingo opizio beñian?

—¿Ilpiztaletan?

—Bai.

—Oraintxe gaude ba lagundia antolatzen bi zatitan, bata daukanari kentzeko ta bestea ez-taukanari emateko.

—¿Eta bi zatietarako naikoa lagun ba zaudete?

—Lenengorako ornitu gera geiegi ere, baña bigafenerako eskastxo ba, Jauna.

—Atera lenengo geiegietatik, eta erantsi bigafenari.

—Ala bear litzake, Jauna: baña zaitxo izango da.

—Ni ere ortan nago. Daukanari kentzeko guziak gertu, baña ez taukanari emateko... ilpiztaleen lekuan, pizti-iltzaleak sortzen ezpazerate...

—Ez, Jauna. Guziz onraduak ba daude gutakoen artian, eta ez-taukanari ematekoak ere bilduko ditugu.

—Ordu artarañoxe bizitzea nai nuke, eta ez geiago.

—Beraz ¿gu asten geranian ez-taukanari ematen, iltzeko gertu dago?

—Bai, orixe, bai.

—Egin dezake ba testamentua, eta érezatuko diogu Pater noster bat.... zerbait uzten ba-digu.

Kentzale txit ona da
gure giz-añaza,
kendua ematea
ez-ta ain éfeza:
beragatik bakoitzak
uste izan beza,
oraindik ere dala
biziko jueza.

I

Juezak:—¿Beñiz ere bai, Pantxo?

—Bai, Jauna: aspaldian ez-tegula ikusi beori ere ta..

—¿Egia da zazpi duro ostudituzula Korleten etxean?

—Ez, Jauna: Esan nion ba azkeneko ikustaldian, daukanari kendu ta ez-taukanari ematea zala gure legia.

—Bai, ta guria beñiz besten gauzai geldi geldi uztea.

—Bai, ba, Jauna: eta orduan esan nion, eta gaur ere esaten diot, juezak ez-tutela eñurik, baizik legeak, gaizki jañiak daudenian. Iñork ez luke iduki bear berak, gorde al baño ondasun geiago.

—¿Eta Korletek ala al zeukan?

—Bai, Jauna: berakgorde balitu, enizkannik ostuko.

—Ba orain daukanari kentzeko elkartu zeraten bezela, eztuanari emateko ere elkartu bear zerate, azkeneko ikustaldian agindu zenduten bezela.

—Bai, Jauna: baña beoñi iltzerik ere ez genduke nai. Eta nola esan zigun, emateko elkartasuna egiten genduanian, nai zuala il...

—Beraz ¿ez-tezute nai ni iltzea? ¿Eta testamentua egitia?

—Bai, Jauna.

—¿Eta testamentuan zerbait zueri uztea?

—Bai, Jauna.

—¿Eta ni bizitzeko, nere testamentua zertarako dezute?

—Ba daki ba, Jauna, ba-da-ez-pa-dan...

—Ba da, dana dala. Gaur bertan biurtzen ez-padizkatzu Korleti zazpi duruak, bigartik espetxe edo kartze-lan sartuko zera.

—¡Zer egingo degu ba! Ura-re gizonentzako egiña da ta.....

Urtu ziran diruak
jan ta edanian;
eta irabazteko
beñiro lanian
nekatu bear gogor
zazpi egunian,
obeto det ordaindu

geldi egonian,
espetxian sarturik
atseden onian:
juezak agin beza
derizkionian,
eta sartzeko gertu
nago, nai danian.



APUSTU MOTZA

Apaiz bik egin dute
aurten apostua,
erten bayetz ta ezetz
arbolari ostua:
merienda jateko
nenguan poztua,
baña tripa gelditu
bear zait ustua.

Akeñaren adaña
baño igarago
arbola zelaian
agerian dago:
galtzaleak ez du, nik
dedan ainbat gogo
merienda jartzeko:
jurkatu lenago!

Juan dan urteko ofi
igar geldituak,
aurtengoak dirala
gaude adituak:
izenbat diskuñitzen du
gizon lañituak!
Pentsatzen det ez ote
geran ijituak.

Suak ematen duan
bezela su-gaia
eta luñak osterá
sasiya ta laña,
ala arbol igañak
ostoa igaña.
¡Ederki jotzen digu
Don Kosmek adaña!

Jakinduriz ez-ta au
partzeko bururik,
ez-ta irakuñi, ez
duan libururik:
meriendaz gauza bat
dakít segururik,
guziok geldituko
gerala baraurik.

Alpeñik eman zaio
ugari gorotza,
arbola ori dago
aspaldi il-otza:
kastu oiekin beñiz
bajatu da poltsa:
¡penaz zatituko da
Jaun onen biotza.

Añigañizko gauza
arbol ofi zayo,
arta landaretxo bat

gorotzetik jayo:
norbaitek al egiña
pranko egin diyo;
baña alper alpefik,
ez dio baliyo.

Merienda bat gatik
jay! zer apuruak:
ófen lamentu eta
ófen suspiruak.
¿Zertako dira úfe
ta mila duruak?
¡Deabruarentzat dira
Jaun ófen diruak!



IJITOKAK

I

(Alkafekin)

—Anton: arbiloreare agertu zaigu ba.

—Eta ¿zer?

—Pazkoak uferatu dirala.

—¡Ai, Mari Martin! zu beti bat; oraiñ ere bildotxa goguan ¿e?

—Bai beste gauza bat ere.

—Asko balioko du.

—Beñepeñ pazkoakoare egiñ bear dezu.

—Eta zuk ¿ez?

—Biok.

—¿Zertako? Gu onuzkero biok beti berdiñ izango gera: Eretore launak ori ondo daki eta, egizu kontu, egiñ degula.

—Eta ¿txartela?

—Ara: zuk ba dakizkitzu nere obenak (pekatuak), neronek bañore obeki; esaizkatzu zearo apaizari, ta zu ta ni konponduko gera.

—Nereak asko ditut nik, eta zuk eramaitzatzu zereak.

Ni izanagatikan
Etxeko nagusia,
Alare egingo det
Diozun guzia.
Alpeñik det zurekiñ
Itzaldi luzia,
Bada onela beti
Galtzen det auzia.

—¿Zenbat denbora?

—Asko askore ez ba, Jauna.

—¿Zenbat ba?

—Urteren bat...

—¿Juramenturik egiñ?

—Jokamenturik ez ba, Jauna: ez-tet jokorako apiziorik.

—Ez-tet esan jokamenturik, baizik juramenturik.

—Bai, Jauna: juramentuak ere egiñ bear izaten dira, bestela ez-tigute sinistu nai izaten eta...

—Baña ¿egiaz egin dezu beti juramentu?

—Bai, Jauna, bai: nik egin dedanian, beti asmo osoaz egiñ izan det, beti ziñez.

—Baña ¿egiaren gañean?

—Egia ere ufitxo izaten da ba ta, ez-takit ba nik.

—Esan zadazu: ¿Ba dakizkitzu Jaungoikoaren legeko aginduak?

—Bai, Jauna.

—¿Bigafena?

—Juramentu alpeñik ez egitea.

—¿Egin dezu juramentu alpeñik?

—¡Orixe ez.! Beste lanen batzuek alpeñik egingo nituan, baña juramentu, beti gauzari etxera bidea emateagatik.

—¿Zer gauza?

—Asto ta mando ta moxal, efopa ta ofela.

—¿Iñorena?

—Ez, Jauna... besterenak.

—Ba besteren gauza jabeari biurtu bear zaio, eta zuk ere jabeari biurtu bear diozu.

—Orixe ta bera esan ziran juan dan urtean ere.

—¿Zer?

—Txanton motelari astoa biurtzeko.

—Eta ¿biurtu ziñon?

—Ez, Jauna.

—¿Noiz egingo dezu ba?

—Andik onera ere, moxal bat arapatu diot eta gu-
ziak batera, datoñen urtian ordaindu bear ko dizkat.

—Ez. Bereala biurtu bear dizkatzu: bestela eziñ
ASOLUZIORIK emango dizut.

—¿Ez-ta piatzen nere esanian?

—Urte osoan biurtu ez ta, gañera moxal bat ostu
duanaz, eziñ asko piya diteke.

—Beraz ¿ez-tegu aurten asoluziorik?

—Astoa ta moxala atzera biurtu gabe, ez.

—Etziran ba atzera biurtzeko ustean ostuak, baña
gure opizioa ere utzi eziñ eta... ostutakua atzera biur-
tzekotan, gure bizi guzian or ibili bear ko degu atzera ta
aurera koñeoa bezela.

—Ez ostu.

—¿Eta opizioa?

—Ori zedoñek pentsatuko dezu.

—Pentsatu bear ko. Amabost egun baru agertuko
naiz.

(Etxera bidean kantari).

Gure atsuak oraiñ
Bear ko du jakiñ,
Nola konpondu naizen
Eñetoriakiñ.
Aiñ da jakiñzalea
Gure Mari-Martiñ,
Nun dakizkian berdiñ
Erdera ta latiñ.

III

(Senar emazteak)

—¿Zer moduz konpondu zera Efétoze Jaunarekin?

—Oso ondo.

—Eta ¿mauka?

—Mauka...estutxoa dauka...baña lasaitzen ere badauki.

—¿Moxala pasatu da?

—Bai, muturka badare pasa da.

—Beraz ¿ondo artu zaitu?

—Oso ondo: beñiz ere laister juateko esan dit: irabazpide on bat ere agindu dit.

—¿Zer irabazpide?

—Kofio jafi nai nau.

—¿Kofio?

—Bai, KOFIO: AMISTRAORE PRENTZIPAL.—

—Añayetan, etzaude makala. ¡A biajendeizula zuri!... Mari Martiñek esan zuan bere artian. Laister Señora aundi izango naiz, kofioako amistraore prentzipalaren Señora. ¡Uuu...fa!.

Antonek beñiz bere artian ixilik kantatzen zuan:

Maiz esan didazu

Naizela zuriya:

Ezta makala, sartzen

Dizudan ziriya.

IV

(Mari Martiñ)

Pozaz txoro egiten zegoan Mari Martiñ egun aietan, laster Señora andi egiñik bizitzeko ustean.

—Egun baten, goizean goiztxo, atea jo zuten Mari

Martiñen etxean. Bi guardi zibil zetozen, juezaren agin-
duz, Anton'en eske. Lonbramentua artzera deituko ziola
esan zuan Anton'ek. Baña Mari Martiñ'i gelditu zitzayon
kezka bat, ziriren bat sartu ote zion Antonek; ziri aren
punta azaltzen ote zan.

V

(Eskutitza)

Kerira Mari-Martiñ: Alumbramiento amistraor no
se puede aser asta murir el de antes: y para kojer txan-
da, entonses me an lombrau auguasil kartzel, para estar
aki, mantenimiento komer buena íasion libre y beber
también.

De uste apetisimo esposo. Anton.

Mari Martiñ'ek dio: Nere senañaren itzak eztira
artikulo fedekoak, eta Santo Tomasena egin bearko.

Sinismen ila baldiñ
Nai ba dezu piztu,
Lenengo ikusi ta
Ondoren sinistu.



ASTUA GAXORIK

I

Kantatutzera nua
nere istoria,
onela al baneza
ondu umoria:
mudatugabetanik
gauzen koloria,
egiak beti dauka
bere onoria.

II

Ijitoai diet
asto bat erosi,
zori gaiztoan nintzan
tratuetan asi:
onetan nere tripak
dirade egosi,
baña beste gauzarik
ez nuen merezi.

III

Inguraturik baba
zaya ta lastoa,
ustez egiña neukan
aurtengo gastoa:
baña bereala da
gaxotu astoa;
ez da beti konbeni
guziyon gustoa.

:: 22 ::

IV

Albaiteroak dute
egin examiña,
deklaratu ere bai
astoaren miña:
gaixoak du bañua
libratu eziña,
sendatzeko bear du
artu meretxiña.

V

Puxigañi jañirik
puntan kañabera,
moda beñian oña
jeringa atera:
malba loraren ura
zayakin batera,
oyekin meretxiña
noa ematera.

VI

Zutiñik egon ezin
gure asto zaña,
aspaldian egin det
gogotik negaña:
lagunak albotikan
burla eta faña,
konsolatzeko ezta
alibio txaña.

VII

Kosta zait egitea
operaziyua,
etzayo ondo irten
eřemediyua:
len falta zana orain
sobra jariyua,
leku guzian dauka
eřegabiyua.

VIII

Laistërka jokatzeko
bareari ankaz,
desafiyo ematen
or dago eřonkaz:
egun osoan jaten
egoteko kapaz,
bazter guziyak ditu
ondatutzen kakaz.

IX

Usai gozoa pranko
ba degu etxian,
lastimaz iraungo du
denbora gutxian:
ařanoak agertu
dira gaur goizian,
aiek ere dabilta
zerbaiten eizian.

X

Ez diot kulparikan
iñori ezarten,
suertia onela
zaitelako irten:
pazientziarekin
pasako naiz aurten,
eřemediatzeko
beste urte baten.

XI

Mundua esan oi da
dala eskalera,
bada ikusten dira
asko gora bera:
nagusiak bota nau
etxetik kalera,
juatera obligatzen
nau ospitalera.

XII

Agur nere astoa,
esanak barkatu,
makafot egin eta
iya naiz urkatu:
zure onran egia
ez det nai ukatu,
amabi bertsorekin
orain det bukatu.



IJITOA PAZKOAKUAN

I

Apaizak: ¿Zenbat denbora aitortu, konpesatu zinañala?

Ijituak: Urtetxo bat, Jauna. Pekaturik ere ez-tegu egiten eta... ara eskrupulotxo batzuek...

Apaizak: Ea esan ba.

Ijitoak: Eskua bete olo-luma bein artu nituala okulu batian.

Apaizak: ¿Nola ba?

Ijitoak: Matxiñ'ek esan zidan lagun egiteko, olo bat arapatzen. Nik, neretzako ustian, kolpe egin nion; baña iges egin ziran esku artian luma batzuek utzi ta. Eta Matxiñek arapatu ta eraman zuan olua... eta gero eskrupulotan gelditu nintzan.

Apaizak: Baña pekatu egiñ zenduan.

Ijituak: ¿Nik?

Apaizak: Bai.

Ijituak: ¿Nola ordia? ¿Ark ostu ta nik pekatu egiñ?

Apaizak: Ark ere bai.

Ijituak: Baña ark pekatu egiñ ba zuan ere, an zerraman olua: baña ¿nik olorik ez ta pekatua bai? Orain Aita Santuak eman duan dotriña beñian ¿ofela al dago?

Luzarotxo jardun bear izan zuten beren ez ta bai dan apaizak eta ijituak; baña oneraño dakigu bakañik garbi Pantxi berari entzunik, ba abestu edo kantatzen zuan:

Ark ostu olua ta
nik egiñ pekatu,
ez nitzan uste ortan
alpeñik nekatu

gezufak aitortu ta
egia ukatu,
¿zertara genezake
bestela jokatu?

II

—¡Pantxi! Pazkoazkoa egiñ dezu noski ¿eh?

—Bai: lardaskatxo bat eman diogu urteari.

—Emango zizkitzun esonde edo konseju onak Efe-
tore Jaunak.

—Bai... baña neonek ere eman diot berari beste
bat asko balioko diona, egiten ba du.

—Guk ere konseju onen premia ba degu ba.

—Baña ari eman diodana, zuri ematea alpeñik da.

—Baña jakitiak ez digu kalterik egingo.

—Aditu ezazu ba zer esan diodan: egin degiola
giltz beña olategiko atiari.

Kontrabandista ona
izan dana auñez,
karabinero ona
izango da eñez.
Denborak erakusten
ditu gauzak berez,
eta esaten dizut
zure on beañez.

III

—¡Ola Matxiñ!.. ¿apaitan?

—Bai: ta oraintxe nua astera.

—¡Etzera gaizki bizi olo jaten!

—¿Ez al dakizu nundik norakua dan olo au?

—Bai, ondotxo ere: zuk ostu oġua ta, nik pekatu egiñ. Ala esan ziran Eřetoreak.

—Beraz ġni libre naiz?

—Ez: zuk ere pekatu egiñ zenduala.

—ġZer? ġOġo bat ostu ta, bi pekatu egiñ?

—Bai, nunbait zuk oġuagatik, da nik lumagatik.

—Beraz ġoġua ta lumak berdiñ dira?

—Berdiñ, berdiñ.

—Ba orainguan egiñgo deguna da oġua ařapatu, lumak kendu ta oġua gořirik ekaři, pekatu bat gutxiago izan dediñ.

—Baña oġoa neretzat.

—Biontzat.

—Beraz oraiñ jateřa zuazen ori ere biontzat biar luke.

Emen kimeratu ziran apurtxo bat: baña paketu ziran, bigaramon gabian beste kolpe bat Eřetorearen oġotegian elkařekiñ egiteko asmoetan; eta gero ortik asiko zan uřengo urteko aitotze edo konfesioa.

Kontu guziak ořa kitatu ederki
gure pama ona nai genduke iduki:
baña sabel gosia izanaz eřuki,
zer egiñ genezaken, edozeñek daki.



ARDUAREN BENTAJAK

I

Gauzen, guazen,
oker edo zuzen,
arduaren bentajak
ikusi ditezen.

Gazte eta alai,
ona nun gatozen:
asi gaitean
basoak betetzen.

II

Ara, ara:
napar ardo zaña;
zuk kentzen diguzu
urdañeko aña:
ila piztutzeko
ba dezu indaña,
edan dezagun
bada zaña, zaña.

III

Ari, ari,
begira berari;
argi bat egon eta
ikusten dira bi:
aurerapen ori
zor zayo arduari
argatik gera
gu eraten ari.

IV

Ona, ona,
gizon guziz ona,
ardotarako saldu
atsuaren gona:
jaia alegre ta
triste biyamona,
baña etzaite
estutu, amona.

V

Bai, bai, ez, ez,
nere maite Kontzez,
berak irakasten du
Ingeles ta Prantzez:
Klin klon ta sibuplé
guzia itz utsez,
eta bañua
betetzen du putzez.

VI

Ez, ez, bai, bai,
jai beti baliz jai!
ardoa eran eta
bizitzeko alai:
ardoak egiten
gaitu danok anai,
ardo zaleok
gera berdiñ non nai.

VII

Ama, ama,
 joía gure fama!
 alde guzietara
 ardoak darama:
 pobriak moskaía,
 aberatsak bromá,
 disimulatzen
 izaten da lana.

VIII

¡Ola! ¡ola!
 ¡ize aía ye pola!
 zuzenian eziñ juañ
 egiñaz aíaola:
 baten baztaía jo,
 bestean arbola,
 zutika eziñ
 ibili iñola.

IX

Pian, pian,
 etxera abian,
 lau oñian bada ere
 ¡aíen! juañ gaitian:
 gauza dana betor
 ixilik gabian,
 bestela geldi
 dedila maipian.

X

Oía, oía,
 ardo aldikoía;
 zúfut egin ta eman
 diguzu moskoía:
 or emen amiñka
 neurtuaz luía,
 kendu diguzu
 sorgiñen bilduía.

XI

Kontu, kontu,
 ez gaitezen oitu;
 ardo asko edaten
 ez dakigun goitu:
 bada ez du iñork
 ardoa garaitu,
 berak bai asko
 azpiratu ditu.

XII

Agur, agur,
 luze ainbat labur;
 ardo edan eta
 sabela gur gur gur:
 eta atzetikan
 jariua pur, pur;
 ¡ai, zer usaia!
 Agur, agur, agur.

I J I T O A K

I

—Aizazu, Patxo.

—¿Zer nai dezu, Matxiñ?

—Mundua ez-tago ba ondo erondu edo gobernatua.

—¿Zergatik ez ba?

—Batzuek gosez iltzen, eta besteak aseztartzen.

—Ori betikoa da.

—Baña ez-ta ondo.

—Ez, ori ez-ta ondo, ta urik eman ere.

—¿Ba dakizu zer gertatu dan Paris'en, oraindik denbora gutxiz onuztik?

—Ez.

—Markes de Praka-zafez il da.

—Eta ¿zer? Praka-zafen lekuan, Praka-beñiz izan balitz ere, berdin ilko zan.

—Baña begira. Lau miloi pranko urtetan arkitu omen dizkate, erdi lizundua lau kutxetan.

—Beraz, praka zafak eta diru asko zituan.

—Bai, ta bere etxetik urangoan zazpi lagun goseak il omen ditu.

—Esaten det ba nik, gure legea jañi arte, ez-tago-ala munduan gauza onik.

—Egia diozu. Munduan naikua gauza ba dago, ondo banatu ez-kero. Guzia guziena da. Jaungoikuak ez-tu sartu inon mugarik, eta gizon batzuek sartu ba zituzten, beste batzuek atera egin bear ditugu, guziok berdin izateko.

—Eta ¿zer deritzatzu ba Prakazafezko markesaren urte pilari?

—Beste ainbeste banatu egin bear degula, eta guziok praka beriz jazteko, lan ere izango degu.

—Ni ere ortan nago.

—Bai: gu an izan ba-giña, uxatuko giñuzen lau miloi prankoak, eta etziran ere gosez ilko, alboko etxeke zazpi lagunak.

—Eta kutxa oietatik ufea atera ta, munduan banatzea bezela da.

—Bai: berdiñ, berdiñ.

—Beste opizio guziak utzi ta, ortantxe al guzia egin bear degu ba.

—Bai noski.

Lanik ez egitea
betiko amesa:
jala batek sabela
bete al baleza!
baña ez-ta izango
gauz oso ezeza:
eta bakoitzak lana
gogoz egin beza,
etorri ez-takigun
laster negu beltza.

II

Juezak zurumuruaren batzuek entzun zituan eta deiturik Patxori, galdetu zion:

—¿Nola dezu izena?

—Pontxo.

—¿Abizen edo apelidua?

—Etxeberria.

—¿Lagunik ba dezu?

—Bai, Jauna.

—¿Bere izena?

—Matxiñ.

—¿Zer opizio dezute?

—Ilpiztaleak gera, Jauna.

—¿Zer izen da ori?

—Erderaz *desamortizadores*.

—¿Beraz ilak piztutzen ba dakizute?

—Ara, Jauna. Ulertuko du, zer esan nai dedan. Parisen Markes de Praka-zañesen etxean, bera il ondoan lau kutxatan, ilik edo beñepein lizundurik arkitu omen dituzte lau miloi pranko ufetan. Etziran ilko edo lizunduko, edo lizundu-ta-re, berpiztuko giñuzen guk an izan ba-giña.

—Eta ¿lan askotxo ba dezute zuen opizioan?

—Nai ainbat ez ba, Jauna; oraindik ere asi beñitxoak gera ta.....

—Ba, ¿arduraz ibili! Asi da jendea mur..... mur.... mur..... olo askotxo izkutatuaz dijoala ta..... Pontxo ta Matxin urian dabilzala ta....

—Bai, bai, jakiña. Guri gurasuak erakutsi ziguten arduraz ibiltzen; bada umetatik abesten edo kantatzen erakutsi ziguten:

Zabaldurikan daukagu pama
olo zaliak gerala;
salda onaren zale besterik
iñor ezpalitz bezela:
olorik iñun paltatzen bada
ijitoentzat kartzela,
edo makilaz porakatu ta
eritik jua ditezela.

—Nik ematen dizutedan esonde edo konsejua da ilpiztale ez izateko: ilai pakian uzteko.

—Eta ¿biziai?

—Biziai..... ¡or konpon.!

—Oloak ere biziak dira
eta beraz, Juez Jauna,
auñera ere egin gentzake
lenago egin deguna:
bizi guzian degu izango.
goguan gaurko eguna,
urte guzian degu artuko
oioa ta salda ona,
onela bizi oi da luñean
kontzientzia on duna.



ANDRE MOSKOÑARI



I

Nere andrea ona litzake
ez-palitz safi egafi,
ark bear ainbat ardo inola
ezin nezake ekafi:
Markesen batek naiko balio
efenta ontxo bat jafi,
komediarik asko izango
genduke etxean safi.

II

Edan dakoan su baztefean
dariolarik eldefa,
egun artako lapikuak du
izango koipe edefa:
itzikan ezin garbi egiñaz,
ez euskera, ez erdera,
baiño ordaiñez, jenioa du
izan-alian kaldefa.

III

Berari geien gustatzen zaion
eraria da pafafa;
baño ardoa edaten ere
ez derizkiot ain txafa:
trago batian bafuratzen du
gutxienian pitxafa,
Kapotxinuak bezelakoa
du arpegiko bizafa.

IV

Zori onean, lujorik ez-tu,
zenbaitek aiña jantzian;
alde ontatik ez du utziko
diru askorik Prantzian:
xoñeko zar bat, bestek emana,
lau zulorekin atzian,
atoña gabe, buru motzikan,
eta beti oñutsian.

V

Zikin zikiñez, ezin geiago,
nai luke ibili garbi:
zikiñak kostraz, ederki dio
egiten brist-brist txit argi:
ez-tala bear kastatu, dio,
lujoz apaintzen geiegi,
obea dala apoñu onaz
otzari eman arpegi.

VI

Sekulan ez du beretzat ere
atoña bakar bat josi;
aiñ gutxi beñiz lapikorikan
egundañore egosi:
merke salduko nuke andre au,
iñork nai balu erosi;
bestela beñiz gaurtikan nua
Amerikara igesi.



BERIZ ERE IJITIAK

«Doi-doian»

I

(S e r m o i a n)

—Prantsisku.

—¿Zer degu?

—¿Gaurko sermoia bai izan dala edera!

—Bai, ari da moldatzen gure Prailea.

—Ark esan du, pekatu egiteko ezaguera bear dala.

—Ori da ba nik beti esaten dedana.

—Guk saritan moskortuz ta, (nai beziñ sañi ez ba-ña)egiten ditugun uskeriak ¿nun izango dira ba oben (pekatu)?

—Ez ba: ezaguerarik ez-tuanak, obenik eziñ egiñ.

—¿Oooo...ri da egia!

—Eguzkia baño argiagoa.

—Emendik aufera, bildotsen bat edo beste, zerbait ala ařapatu nai degunian, moskortu egingo gera auřez: eta... gero gerokoak.

—Baña moskortzeko-re dirua bear da ta...

—Bai, gizona. Zuma ederaak ba daude ibetondoe-tan saskiak egiteko: astoren bat edo beste ere moztuko degu; bostekoak ere ez-titugu beti lo idukiko ta, jan ari-ñian nola gabiltzan, ez-tegu asko bear, puskatxo bat zerepelzeko.

Gure ařaza dana

Ugaria umez,

Eta txakur gosiak

Beti artua ames.

(Aitortegian)

- ¿Bigarrenian?
- Ez, Jauna.
- ¿Irugarren, laugarren, bostgarren edo seigarrenian?
- Ez, Jauna, ez. ¿Juan dan urtian beziñ piñ nabil ni aurten ere gauz oietan.
- ¿Zazpigarrenian?
- Esan diot ba, lengo urtian bezela.
- ¿Piñ?
- Bai, Jauna.
- ¿Ezer ostu?
- Ostu bai ta, ostu ez.
- Erabaki zazu: ¡bai edo ez!
- Bai ta ez.
- ¿Nola da ori?
- Bildots guri-guri bat artu nuan jabearen baimenik gabe.
- Orixe da ba ostutzea.
- Baña... ezaguerarik gabe egiñ nuan.
- Etzera ba zu noski zorua ere.
- Ez, Jauna: baña jan ariñian maiz ibiltzen gera ta tanta bat edan orduko, ezaguera galtzen degu ta, ez-takigu zer egiten degun.
- Beraz ¿ez jakiñian artu zenduan bildotsa-re?
- Bai, Jauna, bai.
- ¿Zer asmorekiñ egiñ ote zenduan ba?
- Badaki ba bedořek ere aokada (bokatu) goxo bat edo beste, noizik beñetan nai bai ta...

—Beraz moskortu-ta-re ¿ba zenekian bildotsa goxoa zala?

—Orixe ba *doi-doian*...

—Beraz ¿etzenduan ezaguera guzia oso galdu?

—Apurtxoren bat *doi-doian* gelditu zitzaidan.

—Beraz ¿*doi-doian*?

—Bai, Jauna.

—Baña... oraiñ lenego egiñ bear dezuna da ordaintzea bildotsaren balioa... *doi-doian*.

.
.

Ni sendo egon aŕen
Asmo nerekoian,
Ordaindu egiñ bear
Bildotsa *doi-doian*.



Zerdoya.

I J I T O A K

(Sermoian)

—¿Zer iritzi diozu, Prantsisku, sermoiari?

—Ez ba ain gaizkire: imurtzitxo batzuek egiñ ditu, baña...

—¿Zer imurtzi?

—¿Ez al diozu aditu ejenploa?

—¿Bildotsarena?

—Bai. Nere baitan egondu naiz pentsatzen, Pelok zerbait esan ote dion.

—¡Zuaz ortik! Pelok eta guk artu genduan bildotsa, etzan beltza ta.

—Ez: ark esan duan ejenploa bildots beltzarena zan; baña esan du beste gauza bat ere.

—¿Zer esan du ba?

—¿Zer? ¡Alajañetan! etzaude makala: neri beñepeiñ ikara andia eman dit.

—Gizona, ez-takit ba zergatik.

—¿Ez? Adi-zazu ba: ark esan du, bildotsa beltza zala, baña beltzagoak dirala bildots ostuak jaten dituztenen bañuak.

—¿Orek beldurtzen zaitu?

—Jakiñ dezazun ba, asi naiz txistu botaka, ia bañua beltz ote daukadan ikusteko: baña ez, txistu garbi garbia bota det.

—Bai, alegia. Bildots beltzak jan ba-giñuz ere... Baña eluía baño zuriago ziran bildotsak jan ta, ¿bañua beztu? Ez, ez.

—Beraz bildots zuriak jan bearko ditugu.

—Bai, bai: ala jan bear ditugu.

—Eta ¿ařapatu?

—Jango ba ditugu, ařapatu egiñ bearko.

—Eta pazkoazkoan ĩnola ibiliko ote gera?

—Beriketak alde batera utzi ta... ariñ ariñ.

—¡Um....!

—ĳZer uste dezu ba, bildots zuria ta beltza berdiñ dirala?

—Ez: oso diferentiak.

—Beraz bildots beltza ostutzea oben (pekatu) bada, zuria ostutzea, diferente izango da.

—Ala diruri.

—Ba obenaren diferentzia ez ta oben izango.

—Ala diruri: baña... ¡Um!...

—¡Zer «um» eta zer mun! orixe da gure pilosopia.

—¡Um, um, mun eta éremun..!

—ĳEz al dezu sinisten?

—Bai, baña...

—ĳZer esan nai dezu ofenbeste «um» eta ofen-
beste «baña»-rekin?

Biziro nai dan gauza

Érez da sinisten,

Baña nai-ta-re ez-ta

Aiñ érez iristen.

II

(Aitortegian)

—ĳLenengoan?

—Ez, ez: ez, Jauna.

—ĳBigařenean?

—¡Ut, ut....! ez ta uřik eman ere.

—ĳIrugařenian?


—Ez ta laugařenian, bosgařenian eta seigařenian
ere.

—ĳZazpigařenian?

- ¡Alto! ortxe: gauz andirik ez-pa-da-re, uskerien bat...
- ¿Zer ba?
- Ez-tu merezi aotan artzia-re.
- Baña... esan zazu ba.
- Iñoiz edobeste... bidean arkitu izan degun bildotsen bat, trabatik kentze-aren, iñork estropuzen bat egiñ ez-tezan...
- Zedořek artu ¿e?
- Bai, Jauna.
- Estropuz egitea baño txafago da ori.
- ¿Nola ordia?
- Estropuz egiten duana, geienaz ere luřera erortzen da: baña, lapuřetan egiten duana, infernura erori diteke.
- Baña... etzan bildots beltza: zuria zan.
- Berdiñ da.
- Zurianta beltza ¿berdiñ dirala? ¡Bedořek ori esatea!
- ¿Zergatik ez?
- Nik uste nuan bildots beltza ostutzea oben (pekatu) zala, baña zuria, beltzaren kontrakua da ta, ura ostutzia obenaren kontrakua zala... edo... ¿nik dakit ba zer esan?
- Ez: nik dakit zuri zer esan. Beltza ostutzea oben beltza da; eta bildots zuria ostutzea, oben zuria. ¿Zer deritzatzu?
- Itxura ba du gauzak.
- Bai: bildots beltza ta zuria, biak bildotsak; eta pekatu beltza ta zuria, biak pekatuak.
- Ala izango da, Jauna: eta oraiñ ¿zer egin bear det?
- Ordaindu (pagatu) jabeari bildots zuria.
- ¿Noiz?

- Berealatxe.
- Orain eziñ dezaket.
- ¿Zergatik ez?
- Afazoi askogatik.
- Esan itzatzu afazoi oiek.
- Lenengoa... dirurik ez detelako: bigařena...
- Naikua da: eta al dezun lasterēn ordaindu ezazu.

Izanagatik ustez
 Gu buruz azkařak,
 Beste batzuek ere
 Ez-tira aiñ txarařak.



NESKA ZAÑAK

I

Neska zañak deitzen
dira orain «damak»,
naiz da izan ainbeste
urte nola amak:
zañaren zañez iya
egiñik eskamak,
ala ere poztutzen
ditu aren famak.

II

Moja jaungo lirake,
ezkondu ere bai,
baña arantzarikan
iñolare ez nai:
eta ¿egongo dira
beti oñela gai?
¡Bai, nere damatxuak,
nere ustian bai!
¿Zer uste dute bada
damatxuak? ¡Ja, jai!

III

Eleizako santuaz
norbaitek eñuki,
otzaz il ez ditezen
bear du iduki:
neska zañak jantzitzen
dituzte ederki;
oyek zertako diran
oña erabaki.

:: 42 ::

IV

Mundu danak oyezaz
egiten du faña,
ez da nai gabe gutxi
sufritu beaña:
edozein umek digo
«oña neska zaña»;
gauza ona ba dare,
izena du txaña.

V

Iñoren iliakin,
falta beñiz ortzak,
alkar jo beañian
sudur ta okotzak:
negua igarotzen
dute dar-dar otzak,
osoro beldurtzen nau
oyen ezur otsak.

VI

Koloria gofitzen
egin al egiña,
ekafirrik kanpotik
pintura txit piña:
baña ezin estali
erdoi ta zikiña,
neska zañen gaitza da
edertu eziña.

IJITO BATEN PAZKOAKOA

I

—¡Ai Mari-Karmen!

—¿Zer degu, Txanton?

—Ba dator ba uferatuaz...

—¿Zer?

—Pazkoazko denbora.

—¿Orek estutzen zaitu?

—Bai: ta ez gutxi.

—¿Ainbesteraño?

—Bai. Kate zafa, baña oraindik ere gogortxo da amar mailako ori.

—¿Amar aginte edo mandamentuak?

—Bai: zazpigañen mala ori ez-pa-lego...

—Ez genduke asko oben izango. Orduan guziak ikasiko luteke gure opizioa eta gero lanik asko izango litzake guzientzat sortzen.

—Dana dala... aurtengoa nola bait ere egingo degu; eta datoñen urtian, ikusi...

Ondo bizi gera gu
denbora guzian;
beti gero obeki
izateko ustian.

II

Aitortze edo Konfesioa

—¿Zenbat denbora da azkeneko aitortzen edo konfesatzen izan ziñala?

—Askok askore ez ba, Jauna.


- ¿Zenbat ba?
- Urte mordotxo bat...
- ¿Ezer ostu?
- Ez ba, Jauna; baña... beiñ ontz ufe bat artu nuan.
- ¿Inorena?
- Ez, Jauna.
- ¿Norena ba?
- Don Pontzioena.
- Ba ori oben edo pekatu da.
- Argatik aitortzen diot ba.
- ¿Damurik ba daukazu?
- Bai, Jauna: ta ez txikiare. Bi ontz ufe zeuden, eta bigaena ezin arapatu izanak, pena aundia eman zidan.
- ¿Beraz zure damua ez-ta ontz ufea ostu izendualako?
- Ez: baizik bigaena arapatu ezin izan nualako. Ostu nuanak eman zidan poza; baño aundiagoa izan zan, ostu ezin izan nuanak, eman zidan damua.
- Damu ori alpeñikakoa da.
- Ba dakit neuk ere.
- Orain ba, atzera biurtu bear diozu bere jabeari.
- ¿Orixe bai izango zait penagaña! Alako kariñua daukakiotan gauza atzera biurtzea...
- Gauza beña da ba: bestela ez-tago oben edo pekatuak barkatzerik.
- Egingo det, Jauna. Baña ¿noiz?
- Zortzi egun bañu.
- ¿Um!.. lastertxo ez-pa-litz... Baña egingo dei, Jauna, ta etoriko naiz.
- ¿Benetan?
- Bene benetan.
- ¿Itz ematen didazu?
- Bai, Jauna, bai.

—Ea ba, etoñi gaur zortzi.

—Bai, Jauna; ondo geldi bedi. Agur eta... datoñen urte arte.

III

Ijitoakgandikan
ikasi dezagun,
nunbait oien urtiak
ditu zortzi egun:
edo ta dira egun
osoro luziak,
edo ta urte oso
laburak guziak.



BIAK ARAZOIA

I

Patxi ta Malen, senar emazte onak ziran. Baña Patxi'k ba zuen Malenek nai etzükian akats bat... Ardozaletxoä zan.—¡Jesus! esan zion Malen'ek Patxi'ri. Bi pitxar ardo eran dituzu, eta etzera oraindik ere ase.

—¿Zuk ba-dakizu, Malen, nik zenbat ardo eran dedan?

—Bai, ta ondo alare.

—Eta ¿bai al dakizu zenbat egañi daukadan?

II

—Maiz izan oi zituzten beren ez-ta-baidak, batez ere jai añatsetan; eta senañak esan oi zuan: Bakoitzak bere tresnak berezi, eta bata besteagandik aldendu egin bear degu; mai au zuk ekañi zenduan, tupia nik...

Eta onela beste tresnak ere berezi oi zituzten bigagaramonian, almoneda egiteko ustian, baña etzan beñ ere egiten. Emazteak añazoia ematen zion senañari berea egindakoa; eta senañak ere bai emazteari: ala biak izaten zuten añazoia, eta patxar apurtxo bat txurüt egiñaz, paketzen ziran uñena arte...

III

Aur eder bat izan zuten, baña laixter il zitzaien, eta Malen iñude juan zan Donostiara.

—Patxi, ¿bai al dezu Malen'en beñirik?

—Bai, Joxepantoni: ona emen bere eskutitza.

—¿Zer dio?

—Lastozko txapel bat bialtzeko esaten nion udarako neretzat, baña esaten dit, bururik ez-tuenak, ez-tuala bear txapelik.

I V

—Ongi etofi, Malen. ¿Ba zatoz?

—Bai, ba nator ba, Patxi: ez nai baño len.

—Ni ere ondo naitua nenguan zu etortzeko; diru preskua ere ekañiko dezula ta... aspaldian legortxo ere eztañitik ba nabil eta...

—¡Uuum!

V

Diru preskua iraun zuan bitartian, ondo ibili ziran: biak zuten añazoia. Baña egun batian oso aseñetu ziran. Etzeguan alare almoneda egiteko biderik. Patxi'k saldu zituan etxeko tresna guziak, emaztea iñude zan bitartean, eta egin zion beti betiko agur emazteari.

—Ogei ta lau ordu baño len etxeruntz begira jañiko zera—esan zion emazteak.

—Zu beñiz ogei ta lau ordu baño len, nere eske etoñiko zera—erantzun zion Patxi'k.

V I

Ibañetako bentaraño juañ zan Patxi; eta an orditurik, bere emazteari zinzer aldi (zenzeñada) bat emateko ustean, abiatu zan etxe aldera; baña ilun zegoan eta sartu zan Eñota-txikiko zalpurdian, lo egiteko asmoan.

V I I

Eguna argitu baño len, an zan kaliañ Eñota-txikiko moñoa adaña (korneta) joaz.

—¡Julian!—deitu zion emakume batek.—¿Bai al dakatzu patatarik?

—Bai, Malen: erantzun zion moñoiak.—Or daude zaku batzuek iriñen gañian.

—Ia ba, bat ematen didazun.

—Arzazu zedoñek, nik zaldi izu oni eusten diodan bitartean.

Juañ zan Malen zalpurdira; oratu zion gañeko za-

kua'ri, eta astuntxoa ba zegoan ere, eramán zuan nekez, al bezela, eta etxeko atarian gora igotzeko puxka bat atsedentzeko, bota zuan... ¿Zer?... ¡Bere senaía!

Ikaraturik esan zion emazteak:

—Ba nekian nik, zu, ogei ta lau ordu baño len, etxeruntz begira jaíiko ziaíala.

—Bai ta nik ere, zu, ogei ta lau ordu baño len, nere bila etofiko ziaíala—erantzun zion Patxi'k.

Patxi gizajoa da
Safitan egaíi,
Malenek eztio nai
Ardorik ekaíi.
Ez-ta-bai-dan dabilta
Estu eta laíi,
Alare aíaioia
Ematen alkaíi.

Malen iñude juanik,
Senaía etxian,
Lanik asko egin du
Denbora gutxian.
Tresna danak saldu ta
Etxia utsian,
Ondo garbirik zeukan,
Malen biurtzian.

Txiki bat ardorentzat
Eziñ ezer sortu:
Patxiri eztaía
Osoro legortu.
Eta Maleni baíiz
Belariak gortu;
Eta Patxiganako
Biotza gogortu.

—Agur: oraiñ betiko
Ba nua ni, Malen.
— Biurtuko zera, bai,
Zu, nik nai baño len.
—Ez: ez-pa-zatoz bila
Neronen ondoren.
—Zure beaíik eztu
ñork ere emen.

Ustez zeramarik
Patata zakuan,
Malenek an zeraman
Senaía lepuan.
¡Ai zeñek leukakian
bi aien sasioa!
¡Beti ez-ta-bai-dan ta
Biak aíaioia!...

ONTZURĒA

I

¡Amaikatxo buruko-miñ senar emazteai emana zan ontzurĕ uraxe!

—¿Zertarako dezu, Mari Andres, ontzurĕ ori ainbeste denboran armaioan? -galdetu oi zion Joxepek.

—? Ai nere Joxepe! Uĕea ikuste utsaz poztutzen naiz ni.

—Ikuste utsak eztingu ba sabelik beteko.

—Beti sabela daukazu zuk mingaiñian. Ontzurĕak eztizu eragotziko sabela betetzerik.

—Oiek koplak dira.

—!Baña gizona! Nere amari bere amak eman omen zion dotean, ezkondu zanian. Ari beñiz bereak; eta ala eskutik eskura bai omen daramazki miĕa urte: eta ¿zer uste dezu?

—Bi miĕa ba daramazki ere, beti antzu dago; ta zu zedori ere etzera zalea bei antzua etxean idukitzen. Obeki egingo zukean zure amonak, edo amonaren amonak, edo lenengo eskuetara zuanak, koĕituan ipiñi balu, eta eskutik eskura koĕitu ta guzi alderazi; gaur izango giñan txanpontxo batzuen jabe; eta orain beñiz Santu baten erlikia balitz bezela, gordetzen eta beti bildurĕez.-

—¿Zeren bildurĕez?

—Lapurĕn bildurĕez.

—Nerau ez beñepeñ.

—Ni bai. Beiñ baño geiago tan gogoratu zait gau za bat.

—¿Zer ote da ba? ¿Jakiñ al diteke?

—Bai; «Zaizakuk» egin zuana da.

—¿Zer egiñ ote zuan ba?

—Etxe bat zeukan; saldu, jan eta edan egiñ eta soseguz bizi.

—¿Etxeak galtzen al zion sosegua?

—Bai; su kanpaia jotzen zuten guzian, beti bildufez, bere etxia eřetzen ote zeguan, lorik egiñ eziñ eta beldufez labořian.

—¿Eta zuk lo asko galtzen al dezu ontzufeia dala ta ez tala?

—Bai, ez gutxi ere. Gabian zaratarik txikiena dani-an ere lapuřak ote diran beldufez, ernai egoten naiz. «Zaizaku» eztu ofelako bildufik.

«Zaizaku» ta Joxepe
Beti alkařekiñ,
Itxurak dakařenez
Jokatzen dute piñ.
Mari Andresek nai du
Zer dabilten jakin,
Baña geldituko da
Jakiñ naiarekiñ.

Pipeřa baño miñagoa azaldu zan Mari Andres San Juan goizean.

—Joxepe, esan zion senařari-ontzufeia ezkutatu da armaiotik, eta oraintxe ez takit zer esan eta ez zer egiñ.—

—Zer esan ez pa dakizu, ixilik egon, eta zer egiñ ez pa dakizu, artu abanikua ta, zure buruari aize emanaz, zaude patxaran-erantzun zion Josepek.—

«Zaizaku» ta Joxeppek jařera aundia zerabilten egun aietan, Motxiřen ardantegian, eta jendiaren mor mor-etak zioten; ontzufeia Motxiřen sakelean obiratua izan biar zuala. Bederatzi egun iraun zuten bi gizon auen

juan etoñiak Motxilēn ardantegira, eta beñi jarioak zio-
ten: ontzufearen bederatziufena an egin zala.=

Jendearen mor moñetak eldu ziran Mari Andres'en
belafietara: bai ta onek laister esan ere bere senafari,
aditu zituan beñiak.

Nai zekion Joxepek agertu bere pena andia Mari
Andres'i ontzufearen galeragatik: baña bañuan ez ta-
goana kanpora azaltzera ez ta eñez ta, ara zer egin
zuan.

Ontzufearen irudi eder bat oial beltz zatitxo baten
jañi eta, beso bat oial ofezaz inguratu eta, oñ lutua jan-
tzi oraingo modan penaren penaz ontzufearen galera-
gatik. ¿Egin zuan beste ainbeste Mari Andresek? Jar-
dun bai beñiketan.

Joxepe ba zebilen
Ez egiaz lotan,
Baña bere emaztea
Bai eñezelotan.
Ontzufeoa ote zan
Itoa ardotan,
Bada bere beñirik
Etzan ingurutan,

—¿Nork sinisterazi gure Mari Andresi nik eztaki-
dala ontzufearen beñirik?—esaten zuan Joxepe gizajoak.

Gañera beldur ematen zion Mari Andres'en bekoz-
kuak, baita bere ixiltasunak ere. Lenago umore on al-
dietan esaten zizkan emazteak: «Keriro, Pepito pitxon»
eta ofelako beste erdal itz gozoak eta orain «mu» ere
ez.

Nola-bait-ere bere emaztearekin adiskidetzeko ne-
kez baña esan zion:

—Uste det Mari Andres, gure ontzufeoa ijitoak os-
tua izango dala.

Aitatu ba-zion aitatu ontzufeá, sutu zan Mari An-
dres eta eman zizkan laster ontzufearen ganbioak, esa-
naz:

Zu zeofi zerala
Naikua ijito,
Alaxe uste det nik
Keriro Pepito:
Ardotan dezulako
Ontzufeá ito.....
Kontu oiek juan ziran
Eta orain kito.



“KAIKU,”

Kaikuk eragiten du
Paŕea naikua:
Kaikua beti, beti,
Dalako Kaikua.

Bein bakaŕik izan zan
Kaiku Donostian:
Gogoan izango du
Bizitza guztian.

I

Etzan asaŕe mutila, Donostiako pondan bazkaltzen asi zanean. Eraman zuten sala eder batera, eta aŕayea! emakume argia zan uraxe, sudur zapirik etzuala igarita, albuan jaŕi zion (serbiletan zan), eta ondo etoŕi zitzaion suduŕa garbitzeko. Mai txiki batian bera bakaŕik, eta beste maietan ere jende asko zegoan; baŕna oartu zan gauza batez: sudur zapiak zeuzkaten, bestiak okotz petik zinzilik. Nai zukean berak ere ipiŕi, baŕna erori egiten zitzaion, eta mai serbitzaleak katiatu zion oŕatz batekiŕ. ¡Bapo! esan zuan, ederki, dotore natxiok.

Sudur zapi oŕekiŕ
suduŕa garbitu:
erakus garri onak
bertan utzi ditu.

II

Sopontzi edo sopera, kutxaria, plater eta basoak auŕean. Baŕna ¿zertako ainbeste beŕiketa? Asi zan jaten kutxaroiakiŕ sopontzitik. Baŕura ta kanpora zijoan sopa,

baña kanporakua platerara erortzen zan, eta ondo zetofofen geroko. Azkenian sopontzitik zúfut egin zuan, eta jederki! esan zuan; lastima uan Donostira etofi gabe egon beafa. ¿Zertako ote ziran baso aiek? Urik etzuan eran biar, etxean eraten zuan naikua. Ardoa befiz, botelatik erango zuan eta, ez alare nola nai. Zúfutada baten ustu zuan botela osoa.

Zúfut batian ustu
Botela osua:
ofetan ezagun da
zala txit gozua.

III

Mayaren ezkefeko aldetik zegoan kristalezko ate bat, eta bafutik ageri zan giza seme bat bazkaltzen: (Kristalezko atetzat artzen zuan «ispilua»), eta an zegoan bere iduria artzen zuan beste gizontzat.

—¿Nor da ura? galdetu zion mai serbitzaleari.

—Sakristaua, erantzun zion.

—¿Nungua?

—Kasinokua.

—Kasinoan ¿bai al dago elizarik?

—Bai gizona: ¿ori ez dakizu?

—Ez nekian ba.

—Ba ori da Kasinoko Sakristaua. (Eta esan zion ixil ixilik belafira konfiantzan): Nere senargaia da.

—¡A! bejun daizula zeuri (erantzun zion Kaikuk). Kasinoan Elizarik zegoanik enekian. Eta zein Santu dute Patroi?.

—San Kasiano.

—Ba!, bai: argatik deituko diote Kasinua.

—Alaxe da.

An zeudenak egiten
zuten gogoz paña:
Neskatxak aiñ ederki
jotzian adará.

IV

Joxe Maritañen artian ere ba dira gizon ernaiak. Kaiku gizajoari, berak etzekiela, atera zioten eñetratu bat, serbiletan papañan zintzilik zuala, eta atera zan bere onduan eñetraturik neskatx mai serbitzalea ere.

Etixerakoan Añuako gelune edo estazioan, trenetik ateratzean, an zeraman bere serbiletan, eta etzan oartu etxera eldu arte; baña ondo etoñi zitzaion Donostiko oroipentzat, artu zuan sudur zapi uraxe. Egun batian ekañi zion koñeoak, eskutitz edo karta itxi bat. Askatu zuan eta zetofen bere ta neskatxaren eñetratua. Nor ote dira auek? galdetzen zion bere buruari. Nik auen arpegiak nunbait ere ikusi ditut ba..... ¡Ai añayea! Bera dek bai, Kasino'ko Sakristaua, ta emaztea ezkon beñiak. Iangoikuak nai badu bildots bat artu ta baniek berakgana aurtengo udan. Mundu guziari erakutsi bear izaten zion eñetratu au. ¡A Kaiku, Kaiku!

V

Kaikuk jañi zuan eñetratua salaren erdian eta erakusgai zeukan. Ikusten zuten guziak uste zuten Kaiku ta bere emaztea zirala: ¡Kaiku, Kaiku! esan, baña mutiñ azkaña da ori, esaten zuten batzuek. Beste batzuek zioten: Ederki jo dio adará (uññekoak). Ixilik ibili da mutiñ ori. Eñi guzian Kaiku'ren ezkontzaz itz egiten zan, baña emaztea etzan agiri. Lagunak eskatzen zioten apari bat: emakumek eñepresko bat, eta guziak zeukakioten zer baiten eskabidea. ¿Ez al diuk erakutsi bear ire emaztea?

¿Beldur al aiz ostuko ote diagan?. Etzekian berak zergatik zan, eta esaten zuan: edo ta efi guzia zoratu da, edo ta ni zoratu naiz.


Juan zan sasi-letrau batekiñ konsultatzera eta onek esan zion:

Jakiñ ezazu dala
zure pekatua,
sala ortan agertu
dan efretratua.

Ere zazu ta oña
dana bukatua:
bestela Santagedan
dezu ostatua.

Buruari azka zebilen ondorengo egunetan eta mutil koskoñak abesten edo kantatzen zioten:

Kaikuk eragiten du
Pañea naikua,
Kaikua beti beti
Dalako Kaikua.



ANTON ETA MARTIÑA

Anton eta Patxi.

—¡Patxi!

—¡Eup! Anton: ¿zer degu?

—Ia onuntz, pipa artuaz, itz alditxo bat egitera.

—Guazen onetan.

—Etxia saldu omen dizute. ¿Egia da?

—Bai.

—¿Eta nork erosi?

—Konde Karakolesek.

—¿Gizon andiren bat izango da?

—Bai, beñepeñ, andizkietakoa.

—Bai, bai. Ala esan oi zuan gure aitak: Kondia, gizon andia.

—Ala izan ere.

—Ezagutu zenduan Alzoko andia?

—Bai: umia nintzan, baña ezagutu nuan.

—¿Kondia al zan?

—Ez: etzan eldu maña ortaraño.

—Beraz Kondiak, gizon andiak izan bear dute.

—Ala diruri.

—¿Nun izaten dira Konde oiek?

—Madrilen, Donostian eta ala, efi andietan.

—Bai: itxurare alaxe da, gizon andiak efi andietan.

—Gure nagusia Donostian bizi da.

—Donostiarraño juango nintzake ba ni, ofelako gizon bat ikustiagatik.

—Eztaukazu ba ufuti Donostia.

—Ez: eta esateiot gure atxuari, ilebetian, egunian

talo bat gutxiago jantare, aurfatuko nukiala Donostiara
juan etofi bat egiteko ainbat diru eta.....

—¿Eta ¿zer?

—Eta... mila treta.

Asperturikan nauka
ni beti etxian,
eta bera kanpoan
nai duan guzian:
gauz onikan sekula
ez, bere bizian...
Ez naiz onela egongo
dembora luzian.

Senar Emazteak

—Ai zan, Martiña.

—¿Zer degu, Anton?

—Gauza bat etzoatan ba ondo iruditzen.

—¿Bat bakarik?

—Lenengo beñepein bat, gero beste bat, gero bes-
te asko ta onela.....

—¿Zeiñ da lenengoa?

—Jaungoikua amatzea gauza guztien gañian.

—¿Ori da ondo ezteritzazuna?

—Ez: ori ik eta nik baño obeki dakianak jañia zegon.

—¿Zer da ba ondo ezteritzatzun lenengo gauza?

—I astian bi edo iru aldiz juaten aiz Donostiara, eta
ni enaun izan ogei urte ontan.

—Nere lekuan juan nai ba dezu, ni pozik geldituko
naiz etxian. Ekañi ezazu zuk etxian bear dana ta...

—¿Ekañi? Eraman geiago egiten den ekañi baño.
Afautza, esnea, oñuak eta gauz onik onenak Donostiara.
I bapo: eta ¿ni?....

—¿Eta ekartzen dedan dirua?

—Etzekiñat ba nik: ez tiñat ezer ikusten eta...

—Ez noski: biar dezun guzia eskura ematen zaizu ta merezi zenduke.....

—Ez ari asefetu; bestela beñiz adiskidetzen bi lan izango ditun.

Onelako gizona
etxian duanak,
safi izango ditu
naigabe ta penak.

—Gure atxu au bai da
andrerik onena...
egiten duanian
berak nai duena.

Donostian

—Ai zan, Martiña. Orixe den zalpurdi (kotxe) ede-
fa; bai zaldiak ere.

—Orixe da ba Konde Karakolesena.

—Izango den; lau zaldi zeuzkan ta gizon andiren
batena izan bear diñ.

—Ara nun dijuan oraintxe zalpurdian sartzera
Kondia.

—¿Zeiñ? ¿Gizon txiki ura?

—¡Uraxe!

—Emakumia; ura ezin izan diteken Kondia.

¿—Zergatik ez?

—Kondiak gizon andia izan bear dualako.

—Beñepein ofen aita Kondia zan eta.....

—Ba au izango den kondekumia. Esaera den: «kon-
dia gizon andia».

—Bai: eta ¿axeriaren umea?

—Axerikumia, eta kondiaren umia, kondekumia.

Zure legia beti
da «esana esan»,
esaten dezun gauza
naiz ala ez izan.
--Bein baño geiagotan
esan diñat iri,
egia aitortu baño
lenago martiri.

Kalerik Kale.

Bapo bazkaldu ta uju—ju egiñaz ba zijoan Anton Donostiako kaletan, Martiña albuan zuala.

—Buen amigo—esan zion alguazil batek—guarde respeto.

—¿Erderarekin, adiskidia, nigana? Leku txañera zator, erantzun zion Antonek.

—Vayase en santa paz.

—¿San Tapas? Santu befiren bat al dezu? ¿Ala San Tranpas?.... Anton ezta gero Anton...

—Váyase en silencio.

—¿Si lentzio? No lentzio. Lienzos vender allí denda.

—No entiendo.

—En tiendo, nó; en tienda, en tienda de lienzos.

—¡Vaya Vd. a paseo!

—Usted pasio; kasero poko pasio, mucho traajo.

—Anton—esan zion Martiñak—preso eramango zaitu ofek.

—Etzion belduñik: au baño azkañagoak bearko diñe izan, ni preso eramateko.

—Guazen ba trenera.

—Guazen ba guazen, baña damu diñat San Kasiauoko eliz uraxe ez ikusia.

¿Zer ari zera esaten, gizona? Ezagun da ondo

bazkaldu dezula; emen eztago San Kasianoko elizarik.

—¿Zer den ba kaiera bideko bi tofe dituan etxe eder ura?

—Kasinua.

—¿Zer esan nai diñ izen orek?

—Jokoko etxia.

—Jakiñ izan baniñ ori, enindunan etxeratuko musian txakur andi bat badare jokatu gabe.

—Bai, bai. Zure poltsa baño beruagorik ezpalitz, elitzake egingo Kasino asko.

—Goguak ematen zidan ba, atzera juan eta mus bat botatzea.

—Ez, ez; orain trenera juan bear degu.

—Utzi nazan ba, bertso bat botatzen Donostiari agur egiteko.

—Tira ba, tira.

Antonek uju-ju andi bat egiñ eta bota zuan ondorengo bertso au.

Jendeak esango du

bata ta bestia,

eta esan dezala

nai duan guztia.

Orain ba guaz ni ta

nere emaztia;

ondo bizi zaitezte...

¡Agur Donostia!



KAPE LA MAIÑA

I

Senar emazteak

—Bai, bai; Jaungoikuak nai badu, denbora asko baño len ikusi bear diñagu Kapé de maiña ori ere.

—¡Jesus! ¿Zer pisti mueta degu Praiskanton, Kapé maiña ori?

—¿Ez aldaquin, Barbara, Ambruxik zer esan zuan atzo?

—¡Ja-jai! Ark etzuan esan Kapemaiña.

—¿Zer ba?

—Kafé de la Marina.

—Dana dala; Kapelamaña. Etzatan aztuko.

—¿Diru asko al daukazu auñatu ta?

—Oraindano izan ditudan diruak, auñera bialduak zetiñat beñepeñ.

—¿Eta oraindik bialdu bear dituzu geiago ere Donosti aldera?

—Bialdu, ez; neronek eraman.

—Etxerako berdintsu izango da.

—Ez ordia neretzat.

—¿Eta zerori etxea baño len izango zera noski?

—Bai; beñepeñ nerau ez izatekoz, etxeak ere elikedan paltarik egingo.

—Naizuna egizu ba.

—Al dedanare ez uke gaizki izango. Beñepeñ etzidan pañerik geiago egingo Anbruxik, Kapelamaiña ikusi eztedalako.

—Ajola dizu zuri Anbruxin pañeakgatik.

—Ago ixilik, Barbara; eta ikasi zan antziñako lezio au:

Senar emazte onak
bizitzeko berdiñ,
emazteak isiltzen
ikasi bear diñ.

II

(Donostiko kalean)

—Ementxen dek ba numbait ere... Aizazu, adiskidia; ¿nun degu Kapelamaiña?

—No entiendo bascuence.

—¡Ola! Entender bascuentze no, pero komer baskuentze sí, ¿e? Amaika erdelduni jaten ematen zioagu euskaldunok. ¿Euskeraz eztakian empleatua Euskalerian? Beñiz ere egongo gaituk gauden bezela... ¿Zer da burundara au? Emakumetxoa, ¿zer dago or bañuan? ¿erlea ala?

—Kafia, gizona, kafia.

—¿Zer kape?

—Marinakoa.

—Au da beraz kapelamaiña...

—Sartu zan nere gizona kapien; txapela erantzi ta esan zuan «ai maia puisima». Etzion iñork erantzun eta batzuek bañere egiñ zioten.

Esan zuan bere artian Praiskantonek: ez ote dira auek kristauak?

Jende asko eta danak salda gazi-gezau probatzen bezela zeuden. Mantal zuriaz, ile ederki ofaztuaz, emakumeak ala gizasemeak ote ziran... baña ez, bizar dunak ziran, kape partitzen zebiltzan. Etzion iñork jaramonik egiten, eta ¡aaapa! esanaz, exeri zan, besteak zeuden bezela.

Ekari zioten katilutxo bat bere platertxoan; beste platertxo baten azukrea lau zatitxotan, kopa bat eta bo-

tila bat, kafia katilura bota, eta aldendu zan mantal zuriduna. ¿Zer egingo zuan? Zúfut baten edan zuan kafia... berotxo... mingotxa... ¡puff..! jan zituan lau azukre zatitxoak eta... ainbestetxoan... Bete zuan botilatik kopa, edan nai izan zuan, baña eztafiko zulora eldu baño len aoko beroak lufundu zuan edaria, eta len baño-re ao legořagoaz gelditu zan... ¡Ze ařaye!... edan zuan trago baten botilan zegoan guzia eta berotu ta gorbiztu zan.

Pipa piztu ta asi zan bertsoetan:

Botila txikia ta
kopa txikiago,
egařia kentzeko
gauz on gutxi dago:
egiñ ařen al ainbat
botilatik trago,
ao legořaz emen
oraindikan nago.

III

¡Agur ispiřua!

Josemaritar batek, baře egin nairik Praiskantonen bizkařetik, esan zion:

—Begira aitona; debekatua dago emen pipa artzea.

—¿Zergatik?

—Ara zer dion eřeglamentuak: Se prohíbe fumar en pipa bajo la multa de dos pesetas,

—Sí, señor, sí; pero esos son beřiketas-erantzun zion Praiskantonek.

—Ara; lenbizikoagatik barkatzen zaio, baña ufengoan kontuan ibili.

—Uřengoan emen baño len, ikusiko nazu Josefateko zelaian.

Iru pezeta pagatu beařak kafe, kopa ta botilakuak min eman zion, bařa etzion beřepein Anbrusik bařerik egingo Kapelamaiřa ikusi etzualako.

—Ariyo jaunak—esan eta—ba zijoan kapetik teratzera, bařa, ara nun ikusten duan Anbrus bera, kape bazter batian.

Arixe kaskařeko bat makilaz eman gabe, etzuan atera nai izan. Ba dijua ixil-ixilik eta jotzen du... ispi-llua, Anbrus jo beařean. ¿Nola ordia? Aisa; Anbrus kafian zegoan, bařa Praiskantonek ikusten zuana, etzan Anbrus, baizik onen irudia ispiľuan...

Ausi ba zuan ixpiľua, ĵura zan gero istilua!

Praiskantonen penarik andiena etzan ixpiľua pagatzia, baizik Anbrusen auřian geiago Kapelamařarik ezin aitatu izatea, lotsaturik utzi etzezan, bařa «esan dezala naiduana; nik eztet aren oe auřetik, nerera juan bear, eta or konpon».

IV

(Bere etxean)

Gaztařak egosi, beren ura katilũ baten artu, eta oraindik ere argitxoa zan bere koloria kafe arenaren aldean; kelar apurtxo bat bota, zapi baten iragazi, eta kafia bezin beltz atera zitzaion, bařa oraindik ere mingotxoa; azukrea ugari bota zion, eta gozoa bai, bařa il edo makatxoa iduritu zitzaion. Piper autsa bota, beřiro zapien iragazi, probatu zuan, eta ederki: Kapelamaiřan ere etzuten oberik ematen.

V

(Pregoi a)

Urte beři egunian Praiskantonen etxean emango da kafe ona ta merke.

Auzoera artako gizon guziak ere etziran asko, baña geienak Praiskantonen etxean ziran.

Praiskantonek egin zuan kafia ugari, eta aitzakirik iñork eman etzezan, bota zion kafiari azukria efuz neufi gabe, ugari, beñepein gozoa izan zediñ; baita pipefa ere, baña... ¡gizagajoa!... azukria zalakoan ¿gatza etziron ba bota?

Ala ta guztiz ere jendeak, zuñut eta puñut, batak eztul, besteak doministiku, beñepein irentsi zuten Kapelaimañakoa baño ohea zan kafe ori.

¿Gero? Gero lañi zebilēn jendia. Etzan Zestuako uraren beañik; presaka zebiltzan gizonak; nundik eta nora zebiltzan ezagun zan, eta azkenik korkoxek eman zion amaiera pestari bertso oekin:

Praiskantonek ba daki
gaur Galenok aiña
berak ematen duan
purga da bikaña;
len Muxu Lañoa, ta
gero karabaña...
baña orain onena
da Kapelamaiña.



LESAKAN

Premin Jenerua.

I

1859'gaíen urtea zan gutxi gora bera, eta jai egun batian, meza nausi ondoan, Lesakako Eriko etxearen aurreko enparantza edo plazan, gizatalde bat zegoan; beren erdian inguraturik zeukaten larogei urte inguruko gizon buru zuri zartxo bat. Batak galde eta besteak galde, batari erantzun eta besteari erantzun, guziak zeuden baitez. Zer esaten zuten eztaikit garbiro, baña bai, sorgiñkontuak zerabiltzkitela.

¿Nor da gizon buru zuri ori?—galdetu nion aietako bati. Eta erantzun zidan:

—«Jenerua.»

—Zer jenero?

—Premin Jenerua.

Aditzen zegokigun batek, esan zidan:

—Buru zuri oíek bere izena du Fermin Jenero, baña berare nolabaitekotxoa da, eta deitzen diogu Jenerua, eta berak ere ontzat artzen du.

Bein batean kimeratu zan eriko jaun batekin, eta onek deitu zion «erua.» Orduan ukabilkada batez jo ta bota zuan ankaz gora jaun ura. Onek deitu ta eraman zuan alkatearen aúera, justizia egitera.

—¿Zuk jo dezu, Fermin, jaun ori?—Galdetu zion alkateak.

—Bai, jauna—erantzun zion Fermiñek.

—Zergatik?—galdetu zion alkateak beñiz ere.

—¡Ai ba jauna! Eruak eztaki zer egiten duan ta...

—I ez aiz erua—esan zion Fermiñi beste jaunak.

—Ez naizela erua? Eoíek esan didak ba erua naizela eta orduan jo aut. Beñiz ere laster ikusiko dek eronagoan ala ez.

Au esatean ukabila gogortuaz zijoan Fermin, eta beste jauna, au ikustean, laster juan zan igesi. Ogei ta lau orduko kartzela eman zioten Fermini, baña bi ordu baño len atera izan bear zuten.

Lastaian zegoan lasto guzia atera, leioaren ondora eraman, eta su eman zion. Kia abiatu zan kalera; jendea bildurtu zan eriko etxea eretzen zegola ta; kartzelako atea idiki zuten presaka, ta Fermin atera zan patxara guzian pipa artzen; besteak sua itzaltzen zuten bitartean.

Emen ezagutzen da
gizonen burua,
eta Fermin Jenero
etzala erua.

II

Beriz ere laster egin zuan Fermin berekeriren bat, baña gogortxua; bada Uztaren 6'an sartu zuten kartzelan. Bigaramonian San Fermin eguna, Lesakako Patroia, eta baita Jenero-aren eguna ere,

Denbora artan kartzela zegoan Eriko etxeko salaren ondoan; kartzelako ateak zeukan afa bete kuadro inguruko leio txiki bat, eta andik ikusten zan salara zijoan guzia.

Ba zan erian Itzontzi deitzen zioten gizon beritxu bat, eta oni deitu zion Fermin, eta esan zion:

—Irekin konfiantza aundia zeukat, eta esan bear diat gauza ixilikako bat, ik bakarik jakin bear diana. ¿Itz ematen didak ixilik gordetzeko?

—Bai, bai. Lenago bizirik eriko naute, eta ez nik esan inori, bein ixilik gordeko dedala agindu ezkerro.

—Banian konfianza; eta orain aditu zak. Ona, emen zakutxo edo funda onetan gordia, Eibartik ekaritako pistola bat, kargatua; eta bigar meza nausi ondorean

Ayuntamentua datofenean salara, disparatuko diat pistola, eta or eroriko dek alkatia, eta bukatuko ditut San Fermiñetako festak, ezpata dantzari, antzar eta pilota jokuak. Bigar izango dek alkatiaren eriotza, etzi bere entierua, eta ufengo egunian nere urkamendia... Agur orain, eta esanak esan.

Itzontzi gizajoa, zurkaizturik gelditu zan... baña... ordu bete baño lenago, Lesaka guzia irakiten zegoan. Su ta galda, gizaseme ta emakume (eta auek ez gutxien), alkateagana juan ziran Itzontzi buru zutela; onek esan zuan ikusi zuala pistola, eta atera zuten Fermin kartzelatik, efegutuaz, juan zedila efeura, au da bere etxera, bada Beñeu deritzan basefikoa zan.

Baña Fermiñ kontzientzi oneko gizona zan, eta nai izan zion eman efiari satisfazio bat, bada ezagutzen zuan sartu ziola zurkaitz geiegizko bat, eta auferakoan alako beldurik izan etzezaten, an zebilien etxez-etxe, bere pixtola zakutxo edo fundatik atera ta erakusten.

Eta orain aditu ezazute kontuz gauzik politena: pistola ura zan munaki edo kañada ezur bat. Bi mila anima gutxienaz edo iru mila ufego dituan efi bat, ezur batekin bildurtzen duan gizona, jañiko nuke nik Indenburgen ondoan; jasoko nioke taluntz edo estatua bat, idatziaz bere oñean:

Lesakan bizi eta
• emen bertan ila,
eta lurperatua...
aiñ ixil ixila,
Ibili gabe iñoiz
onoreen bila,
ezur batekin ditut
beldurtu bi mila.
Nere berdiñik bada,
jazaldu dedila!

SENAR EMAZTEAK

S.—Aizazu, txapel bat ekafi bear didazu.

E.—¿Eta dirua?

S.—Dirurik ez, txapela.

E.—¿Zertako?

S.—Jartzeko.

E.—Bururik ez duan gizonak ez du bear txapelik.

S.—Baña bestetako ezpadare, ibildeun edo prozesioan eskuan eramateko badare.

E.—Urtean bein ere juango etzera ibildeun edo prozesiora ta...

S.—San Juan egunian beñepein.....

E.—Geienaz ba. Pazkoakoan bezela. Uraxe dezu naikoa. Gañerakoan asko dituzu etxeko prozesioak.

S.—Eta auetarako ¿ez alda bear txapelik?

E.—Ez, neikua dezu makila.

S.—¿Makila diozu?

E.—Ez, eskoba kirtena.

S.—Nik ez dakit ba...

E.—Nik bai. Galduko banitz ere, nere bizkañean izango ditut ezagunafiak.

S.—Zuk ori esatea!

E.—¡Eta zuk ori egitea!

S.—Ara ba; txapel bat ekartzen badidazu, egongo naiz lau ilabetian ardantegian sartu gabe, ta aurfatuko det txapel batentzako dirua, eta eskoba kirtenetan ere gutxigo bearko degu.

E.—Zu egoten ba zera lau ilabetez ardantegian sartu gabe, ekañiko dizut txapel beña.

S.—Egongo naiz ba, ta ekañi zadazu oraintxe.

E.—Egon zaite zu, ardantegian sartu gabe lau ilabetez, eta orduan ekañiko dizut.

Setatxurikan baldin
badago luñian,
andienetako bat
daukat txit uñian;
nere pama guzia
galdu dit erian
nagoalarik txapel
baten beañian.

E.—Orain arte bezela
bazabiltz gerore,
etorkizun onari
itxedoten gaude;

baña egin artian
diruaren jabe,
egon bearko dezu
txapelikan gabe.

SENDAGILEA (MEDIKUA)

Etzan asafe alkatea sendagile aiñ ona arkitu zua-
nean. Madrilen amar urtez San Karlosko gaxotegian
egondua, eta gaitz guziak bat ez ostean sendatzen ze-
kiana.

—Eta ¿Zer gaitz zan sendatzen etzekiena?

—Azkeneko gaitza, eriotzak berekin zekafena.

—Ori ezta ezer, besteak sendatzen baditu.

—Bai, bai.

Eta ¿Noiz etoriko da jaun ori?

—Gaur afatsaldeko lauretan egongo da udal etxe
onetan.

—Obeko da pregoi bat jotzia, eria bildu ta ikusi de-
zan, eta aditu berak zer dion; eta eman bakoitzak bere
iritzia.

PREGOIA

Gaur arsaldian dator
mediku beña,
Madrilen egondu ta
orain etoña;
udaletxean bildu
dedila eña,
ondo aditu dezan
dakafen beña.

II

Eñi guzia an zan aratsaldean udal etxean eta eldu zan mediku beña. Guziai agur egin ondoan, esan zuan gutxi gora bera goizian alkatiak esan zuana eta gañera Zamorakoa zala, baña euskal eñian azia. Botikarik etzala bear.

—Ba bigartik eña gelditzen da zure ardurapean, esan zion alkateak.

—Agur ba Jaunak, bigar arte, esan ta ba zijoan.

—¿Eta izena? galdetu zioten.

—Petronilo Balujan.

—Ondo da.

—Agur ba jaunak.

—Agur.

Ez alkatek ez bestek ezin asmatu izan zuan jaun oñen izena. Batek Petronilo, besteak Petrolios, uñenak Petrileño, eta beste edozer gauza, baña alkateak erabaki zuan esanaz: onena izango zala deitzea Petrolin.

Medikua juan zanean asi ziran azaltzen bere iritziak Anton Kirtenek esan zuan, Madrilen amar urte egindakoa izateko praka zartxoak zeuzkala iruditzen zitzaio-la, eta praka beñien bila etoña izango zala.

Baña gañerakoak mediku ontzat eman zuten.

Denborak gauza asko
erakusten ditu,
argatik bear degu
egon beti gertu;
ernai bizi ta gauzak
itz gutxiz ulertu,
bonbaren bat eskuan
ezteikigun lertu.

III

Artu zuan Petrolin jaunak efiko gaixo guzien ardu-
ra, eta batari garagar ura, besteari esnea, besteari po-
ru salda, ufenekoari asun ura, eta ala ta onela, beñe-
pein lenengo iru edo lau gaixoak sendatu ziran.

Bere onran eman zan apari andi bat, eta apal on-
doan jendea abiatu zan etxeruntz, geienak zabuka edo
alboraka. Alkate jauna bi lagunek besopetik artu ta era-
man zuten. Irurak zuten lanik asko zutik juaten, eta ga-
ñerakoak ere berdintsu.

Medikuaz etzan inor oartu, eta an gelditu zan maipian.

Gau artan medikuaren bila etofi zan baseitar bat
eta an ziran lanak medikua bilatu eziñez.

Goizian medikuak udaletxetik begiak igortziz eta
idiki eziñez irtetzen zuan garaian, jo zan alkatearen
aginduz:

PREGOIA

Bart afatsean zaigu
medikua galdu,
bere bila gizonak
ditugu bialdu;
eta alare ezta
oraindik azaldu,
ez bedi bada orain
gaxorik makaldu.

IV

Medikua etxeratu zanean, esan zioten nola izan duzan baseñitar bat bere eske, eta gero beñiz il zala gaixoa.

—¡Ah! esan zuan; azkeneko gaitza izango zuan ta eta juan banintz ere alpeñik izango zan.

Galdetu zioten mediku jaunari: «ez al zegoan iñun azkeneko gaitza kentzeko sendagairik?»

—Egon bai, erantzun zuan medikuak, baña oso garestiak; dirua bear liburuak, eta eñemintak erosteko.

—Zenbat ba?

—Gutxienaz bost edo sei mila pezeta.

Oñenbeste ere munduan bada ba, ta inguratuko al ditugu.

Ba zortzi egun bañu ematen badizkidatzute nerau juango naiz Madrilerá, etoñiko naiz liburu ta eñemintakin eta itz ematen dizuet, eta entzun ondo, eztala ni natoñenetik auñera iñor ilko eñi onetan, eta ilko balitz ni urkatu nazazute,

Poztu zan eñi guzia, eta eman zizkaten zazpi mila pezeta:

Juan zan Madrilerá eta idatzi zion alkate jaunari, esanaz bazitekeala oraindik uste baño egun geiago igarro bear izatea, bada makiña beñiak egiten asi zirala, lenak baño obeak, baña nola naire amabost egun bañu etoñiko zala, eta itxi zezatela iñeñi edo kanposantua.

Poztu zan eñi guztia, jo zituzten ezkil edo kanpaiak, musika kalez kale, eta jaso zuten arku eder bat sañeran idazti onekin:

Mediku jaunak egin
bear du sañera,
zoriondu dezagun
bere etoñera

bada berari esker
emendik auñera,
beti biziko gera
iltzen ezpagera.

Igaro ziran amabost egun, ogei, berogei eta eun, ezereen beririk gabe.

Egun baten alkate jaunak deitu zuen efi guzia udal etxera eta guzien afean irakuri zuan Madrilgo izpaingi edo periodiko baten erderaz zegoana, euskerara itzulirik; ara nola:

«Gaur goizian ezkondu da San Inazioko elizan Don Petronilo Balujan, eta bere emaztearekin juan da Kadizen ontzian sartzerara Ameriketarako.

Jaun au, iru urtez arunztik barkileroa zan, baña orain medikutzan irabazi omen ditu ogei mila duro euskalefian. Eztakigu Amerika oberik arkituko ote duan. Jaungoikoak lagundu degiela ezkon beriai, eta barkilerua medikutzat euki duan efiari».

Au aditzean guziak zurkaizturik gelditu ziran ixilixilik. Anton Kirtenek bakaik esan zuan:

«Nik banekian ura praka beriak egitera etofi zala».

Gañerakoak itz gabe edo mutuak ziruditen; ileta edo entiefo bateko jendia bezela eta sakristauak esan zuan «Rekieskant in paze» Amen—erantzun zuten guziak, eta juan ziran bakoitza bere etxera mur... mur... aopian efesponsuak ezezaten.

Zazpi mila peseta... bai zazpi mila...

Gerok efua... Anton Kirtenek efazoia.....

Azkeneko gaitzikan
ezpada sendatzen,
gañerakoak gerok
dakigu aldentzen;
ez ibili beriro
medikuekartzen,
ez utzi inorire
ziririkan sartzen.

¡ALKANDORA BAT!

—Lañitxo zebilen Txifin: iru egun bañu ezkondu bear eta alkandorarik ez. Norbaitek emango bazikion... Lotsa altzan eskatzea?

—Ez, baña: emateko lotsa izango ote ziran bildura..

—Alare badijoa auzoko adiskide batengana.

—Tan..... tan..... tan.....

—Añera.

—Zer ̄oian? ̄gaxo altzera?

—Bai, kataño apurtxo bat edo ala.....

—Mesede bat nai nuke; alkandora bat eman bear didazu, eta zortzi egun bañu biurtuko dizut garbi ta plan-txaturik; iru egun bañu ezkondu bear det eta...

—Eztaukat ba alkandora bat baño, ta.....

—¡Gizona! oian egoteko ez dezu alkandora beañik. Biurtuko dizut gero eta eman zadazu dezun bakaña.

—Baña lixuban det eta argatik nago oian.

—Etzaude añaietan gizon txaña alkandora bat baño ezpadezu.

—Eta zedoñek zenbat dituzu?

—Ni ez naiz oraindik gizona baizik mutiña.

—Ba mutiñ zerala alkandora bat ez padezu, ezkon-dutakoan ez dituzu bi izango.

—Poz edeña ematen didazu alajaña!

—Poz emañe beañik ez du alkandora gabe ezkontzeko baloria daukanak.

—Baloria diozu?

—Bai alajaiña. Meliñara juateko baño geiago bear du alkandora gabe ezkontzeko.

—Eta nerekiñ ezkontzen dan emakumeak?

—Oraindik geiago. Melilara juan eta kantiña bat jartzeko, onak izango ziñateke.

—Kontu guzi auen buruan etzan iñundik alkandoa' ren beñirik.

—Praile sartzekore..... baña ez, ez, iñolare ez; beste zer bait asmatu bearko.

Bakoitzari berea
Ez eman, ez kendu:
¿Alkandorarik ez ta,
Alare ezkondu?
Eta emazte gaiak
¿Adimena nun du?
Pregoi bat jota, dana
Diteke konpondu.

II

Pregoa

Ezkontzen dira Txirin
Eta Mari Kalte,
Añeoak biltzeko
Eske atez-ate:
Tresna zafez al-balitz
Gurdi ori bete,
Alkandoren bat ere
Emango balute,
Beren ezkontza laister
Egin nailukete,
Eta Txirin datoñen
Urtian Alkate.

Eñi guzian ziran tresna zar eñetzeko baño etzutenak balio, gurdi artan bildu ziran, baña alkandorarik ez eta

Txiñin'ek artu zuan burlatzat, baña berak ere egingo zion burla eñi guziari. ¿Nola? Enparatzaren (Plazaren) erdira eraman eta gurdi ta guziei su eman eta efeaz. Ba zijoan egitera, baña agertu zan trapu zale bat, soñean zuan alkandora emango zukena tresna zar guzi aiek gatik.

Egun aietan loteriak baño kontu ohea zeukakion Txiñin'i alkandorak, eta bereala egin zuan tratua, tresna zañak alde batera ta alkandora bestera.

Ikazkiñ batena zirudian alkandorak eta esan zuan Mari Kaltek amar egun bear zirala alkandora ura lixibatu, ondo garbitu ta plantxatzeko; eta gelditu ziran andik amabost egunera ezkontzeko asmoetan.

Beti ibiltzen dira mingaiñ txañak eta mormoñetak ere. Etzirala ezkonduko, Mari Kalte asañatu zala, damutu zitzaiola, Txiñin Melilara zijoala boluntario eta ezta-
kit zenbat gezur geiago, beti iñoren etxea gobernatzen. Baña aditu ondo andik amabost egunera eñian jo zan.

P r e g o i a

Ezkondu dira Txiñin
Eta Mari Kalte,
Egon balira ere
Ezkongai gaur arte,
Alkandora beañik
orain eztaukate
Eta nola Txiñin'ek
Dauzkan asko urte,
Emanik eñiari
Ezkontzaren parte,
Prest dago oraindikan
Jartzeko Alkate.

E'ROKE TA PE'OKER

I

— Ai zazu, Joane: ¿zein dira beti alkafeikiñ dabil-
tzan gizon oiek?

— ¿Beti alkafeikin eta bai eñietan dabiltzan oiek?

— Bai, oietxek.

— E'roke ta Pe'oker.

— Izen politak dauzkate.

— Jafi zizkietenak.

— ¿Bataioan?

— Eztakit nik bataiatuak ezpadirare.

— Beñepein nik eztakit; baña Sandroke pronosti-
koan ba dago, San Pe'okerik ez naiz oroitzen beñere
ikusi dedanik.

— San Predo bai ordia.

— ¿Eta Predo ta Pe'oker berdin al dira?

— Ez, baña bere izen egiazkoa Predo ba du ere,
Pe'okeñen izenak ere ba du bere jatoña.

— ¿Nundik?

— Ara; egun batian, zaldia pe'atzera joan eta jañi-
azi zizkan pe'atzaleari bere botetan ere baña oker; au
da, atzekoaz auñera.

— ¿Zertako?

— Berak zionez, bota gutxiago uñatze añen. Baña
ez: emazteagandik iges egiten zuanian, onek oñatze-
tatik igarten zion nora juaten zan, jañaitu ta etxera eka-
ñi ere bai, eta etzerizkion ondo kontu ori.

— ¡No Señor, eñepolaiña!

— ¡O! ¿Erdera ta guzi?

— Oñelaxe.

— ¿Eta gero?

—Emazte gaixoa buru guzia puskatzen, senaña nundik nora zebilen jakin ez-ta. Etxera ixil-ixilik etofita, an zegoalare, onik onenian kanpora zijoanian ere, oñatzak etxeruntz oi zeuden, eta ala eta onela, bere buru guzia puskatzen zer egin etzekiala.

—Beraz ondo jafia du Pefokefen izena.

—Eztakizu guzia.

—¿Geiagore ba degu?

—Emazteak, jakin peñak atzekoaz aufera zeuzkaila, eta bereala arkitu oi zuan gero, baña...

—¿Zer baña?

—Pefokefek esan zion peñatzaleari, jartzeko peñabat zuzen eta jafi zion.

—¿Eta bestea?

—Bestea len bezela, oker; eta oñela,—(datoñela orain gure atsua oñatzen ondoren nere bila)— esan oi zuan.

—¿Eta senaña?

—¿Peñoker?

—Bai.

—Ardotegian lasai asko kantari.

Nere emazte maite
gaixo ta umila,
alper-alpeñik zabiltz
senañaren bila.

II

—¿Nun zabilta, Efoke?

—Elizatik nator, Peñoker.

—Orain ere gezuña.

—Ez naiz ni gezurtia zu bezela.

—Ez noski; alako amaren semea zera; zure amari gezur ontzi, esan oi zioten.

—Eta zure aitari egi zaku.

—Eztira berdiñ.

—Ez desberdin ere.

—¿Nola ba?

—Nere ama gezur ontzi ba zan, gezur asko esaten zitualako, zure aita zan egi zaku, egirik batere esan gabe, guziak berekiñ obira eramán zitualako.

—Etzan ba mutuare.

—Argatik ba gogora dezakezu, zenbat gezur esango zituan,

—Mingaiñ luze ori moztuko dizut gero nik...

—Bai, nik makil onekiñ burua bi zati egiten ezpadizut...

Etzan odolik ixuri.

Joane ardozaleak deitu biai ardantegira, eta pitxer bat ardo edan eta musian jokatu, eta joan ziran pake santuan etxera poltsa ariñaz eta buru astunaz.

Eta au izan oi zan eguneroko ogia bezela. Efokek esaten ba zuan gauza bat zuria zala, Pefokefek esaten zuan beltza zala; Efokek esaten ba zuan baietz, Pefokekez ezetz. Joane izan oi zuten juez; ardoa edan, musian jokatu, eta bapo.

Esan oi zuan Joanek, Efoke ta Pefoker bezelako beste dozenerditxo bat ba zitukian, etzuala loteri beafik. Bei esneduna jeisten baño pozagorik aritzen zala aiekin musian bere semia laugarfen zuala.

Efoke ta Pefoker
Trabenan musian...

Eta gero etxera

Biak polts utsian.

III

—Ai zazu Pefoker.

—Zer nai dezu, Efoke?

—Zaarture egin gera ta testamentua egin bear.

—Bai ta ipiñi testamentuan ni iltzen naizenian, zu etortzeko nere progura, eta zu iltzen zera nian, ni jua-teko zurera.

—¡A zer fañak egingo ditutan nik zure proguan zure aurretik iltzen ba naiz!

—¿Fañak?

—Bai.

—¡A! ¡zer Paternostefak! kontuan egongo naiz, eta ordañak artuko dituzu zu iltzen zeranian.

—Dana dala.

—¿Nori utziko ote diogu testamentuan irutik batekoa? ¿Joaneri?

—Bageneki nork artuko duan penarik aundiena gure eriotzaz... berari uzteko. Orain artian ere, Joaneri irutik batekorik asko utzi diogu.

—Umeak eta zoroak omen dakite egiak esaten, eta Txomin zoroari galdetuko diogu.

—Aizazu Txomin. Egi bat esan bear diguzu.

—Bat baño ezpada...

—Gu biok iltzen geranian, ¿nork artuko du penarik andiena?

—Trabenariak.

Zoroaren esanak
Ba du balioa,
Ora Txomiñek esan
Ebanjelioa.



EUPARIYA

- ¡Eup...eup...!...¡eeee...eup!
—Adiskidia; alpeñik ari zera.
—¿Zergatik ba?
—Or bizi ez talako zuk bear dezuna.
—¿Bai al dakizu nor bear dedan?
—Ez, baña ba dakit, or bizi ez tana, zuk bear dezula.
—Askotxo dakizu. ¿Salamankan izan al zera?
—Ez; beñerez; enaiz izan Euskaleñitik kanpora.
—Askotxo dakizu ba.
—Asko edo gutxi, neretik bizi naiz.
—Eta gañera besteai erakutsiaz.
—¿Zer erakutsi?
—Dakizuna ta ez takizuna.
—¿Ez takidana ere bai?
—Baita.
—Ori zuk diozu.
—Ez takizu nik nor bear dedan.
—Ez.
—Eta alare diozu ez tala emen biki nik bear dedana.
—Baita, alaxe diot.
—Orixe da ba ez takizuna erakustea.
—Guazen poliki poliki... Zuk bear dezuna ez tet ezagutzen, baña bere izena ba dakit.
—¿Nola da ba?
—Eup.
—¿Nor esan dezu?
—Zuk deitu diozu.
—¿Eta ezta emen bizi?
—Ez, etxe onetan bizi dana katuki goña da.

—Txakurki badare, nik esnatu nai nuke ba. ¡Eeee up!

—Eztizu entzungo. Obe zenduke lepuan daramazun pertz orixe makil batekin jo, ta ofen otsa entzungo du.

—Jakín dezazun ere ba, tanbor jotzale ernia naiz eta ofenbeste egingo nuke.

Asi zan bi egurekin tanboña bezela pertza jotzen, eta bidezko guziak berari begira jartzen ziran; batzuek zioten pertz konpotzale beñiren bat zala, besteak zororen bat ote zan, besteak fantoren bat geiegi edan ote zuan.

Bazkal ondoko loa egiten egon izan bear zuan katukik, baña esnatu zan, eta deitu zion tanbor jotzaileari.

—Adiskidia; ¿zentzafada jotzen ari al zera? Ezta ba emen alargunik ezkondu. Ta ixildu zaite: buruko miña egin didazu zure soñu ofekin.

—Andiagoa egin bear dizut ba oraindik beste soñu batekin.

—¿Zergatik ba?

—¿Ez altzera oroitzen?

—¿Zertaz?

—Antziñatxo baten eman nizun ontzufeaz.

—Bai.

—Nik uraxe nai.

—¿Epea (plazua) eldu al da?

—Ez.

—¿Eta epe edo plazua bete baño len, nai dezu artu atzera?

—Ez genduan eperik jañi.

—Beragatik ezta betere.

—Jañi dezagun ba.

—Jañi dezagun.

—¿Sei ilabete?

—Ez; obe degu dirua dedanian pagatzeko.

—Gizona, ori ezta ondo.

—Ba, dirurik eztedanian, eziñ pagatuko dizut.

—Obe genduke sei ilabete edo urte bete jari.

—¿Baña orduan ere dirurik ezpadet?

—Nik arkitu-eraziko dizut.

—Jo bearko dezu oratio beñiz ere zenzeñada nere atean, len bañore zoliago.

—Besterik ezpada, agiri (recibo) bat badare eman zadazu.

—Bai ta lau ere; eztet ukatuko zor dizudanik.

—Baña pagatzen ezpadezu, ukatzea adiña da.

—Gezuña esatea

beti da pekatu;

zofik enioke nai

iñori ukatu:

baña dirurik gabe

eziñ det pagatu,

naiz ta petardoren bat

norbaiti pegatu.

Ilunabañean etxeratu, beia jetxi, sua egiñ eta pertz beñian esnea egosten ipiñi zuan Eupariak; itufirare juan zan, eta andik biurtzian arkitu zuan sua itzalirik, eta pertza utsik; eziñ bururatu zitzaion zer gertatzen zan, baña ikusi zion pertzari zulo txiki bat, eta asi zan kon-tuak ateratzen onela: goizean jaiki ta azokara; pertz bat erosi, eta tanboña bezela bera jotzean, zulatu; ontzuñea kobratu ez, eta gero kobratzekore itxura andirik ez; es-nia egosten jafi, ta guzia ixuri; pertza utsik eta sabelare bai; egun baterako komedirik asko badek au, eta

¿orain zer? Dana dala; barau egunak ere izaten dira
noizian beñ, eta aufera.

Asteero daukagu
kalian periya,
eta gaur erosi det
pertz beñi beñiya.
Esnia ixuri ta
agur apariya...
¡Baraurik gelditzen da
orain Eupariya!



JOANEREN JOAN-ETORÍA

Sukaldian.

—¿Orain ere pipa artzera zoaz, Joane?

—Bai ba, Praiska; bigar eta etzi eziñ artuko deguta.

—¿Zer da ba ?

—Donostian ez omen dute uzten.

—¿Orire esan dizute?

—Bai, enetxoa; an guzia omen da edeña ta argia, eta keerik ez omen dute nai izaten.

—Nik baño geiago dakizu.

—¿Ezta gaitz, beti etxe zuloan sartu ta zaude ta.

—Zedoñi ere ez det ba uste, etxetik lau leguaz al-
dendu zeranik, zere bizi guzian.

—Ofegatik ez nuke ba il nai Donostia ikusi gabe.

—Lastima izango litzake.

—¿Nik Donostia ez ikustia?

—Ez; Donostiak zu ez ikustia.

—Argatik nua ba, berak ikusi nazan.

—Joan bear ikusiko ba zaitu, bera eziñ etoñiko da
zu ikustera ta.

Pozik dijoa Joane
bidean astera,
baña pozagorik da
etoñiko atzera.

Takilan.

—Oie uste paisano.

—¿Que quiere?

—Bilete.

- ¿Para donde?
 —Para tren.
 —¿Para anden?
 —Para andrea no; en casa se ha querao.
 —¿Y usted a dónde va?
 —A San Sastian.
 —¿Tercera?
 —No Señor, primer vez, torabia no me andado hasta jamas en tren.
 —¿Quiere billete barato?
 —Sí, señor, merke merke.
 —Ahí va.
 —¿Cuanto es?
 —Uno.
 —¿Pero precio?
 —Sesenta y cinco céntimos.
 —¿Perros, cuánto?
 —Trece perras pequeñas.
 —En ocho tamien ya esta bien.
 —No, señor; trece.
 —Diez pues.
 —Tampoco.
 —¿Doce?
 —Tampoco, y si no, devuelva el billete.
 —(¡Ez orixe!) Ai ba pues.

Gaurkoan diruz ez naiz
 beste baten lotsa,
 ostu diodalako
 atxuari polsa.

Trenian.

—Erdalduna baña piña uan gizon uraxe; itz batekua, amairu esan eta bat ere barkatu ez.

—Ea, abuelo, bilete.

—Bilete pagao tengo trese txakur txikis.

—Ekatzu gizona bilete ori, kopla gutxirekin.

—¿Zertako ordia?

—Ekatzu.

—¿Konfiantza geiago eztago gizonen artian?

—¡Venga bilete!

Sudur zapian zazpi korapiluz lotua zeukan Joanek bere biletia, eta asi zan askatzen. Ikusi zion gizonari tenaza txiki bat eskuetan eta galdetu zion.

—Adiskidia, ¿agiñ ateratzalea altzera?

—Venga bilete, erantzun zion oso zofotz.

—Bai, gizona, bai; tomuste.

Egin zizkan bi zulo biletari, eta biurtu zion Joaneri. Asaíatu zan au eta esan zion:

—¿Zer? ¿Amairu txakur txiki pagatutako biletari bi zulo egiñ? ¿Zer dala ta?

—Ixilik ezpazaude bi belafiak zulatuko dizkitzut. Orduantxe gure Joane zurkaiztu ta ixildu zan: txapela belafiak estaltzeraño sartu zuan, eta noizik beñetan, eskuak belafietara eramán, osorik ote zeuzkan ikusteko eta Donostiara eldu zan.

Oraiñtxe sinisteiat

Donostia dala;

ibiliko al gaituk

nola edo ala

Donostiara eltzean.

Etzeukan bere biletia iñori emateko asmorik. ¿Amairu txakur txiki pagatutako biletia iñori eman? Ez, ez.

—Bestiak ematen dute ba.

—Eman dezatela; Joane ezta Anñon. Onuntzakoan balio ba du, aruntzakoan ere zerbait balioko du.

- Baña gizona, eman zazu bilete ori.
- Ez naizela Anton, baizik Joane.
- Or konpon ba, ta egizu nai dezuna.
- Al dedana.

Nolabait ere atera zan geltokitik (estaziotik) biletia eman gabe, ta gero gerokoak.

Biletia pagatu
 ¿ta iñori eman?
 Joanerekin ez bedi
 iñor asi broman.

Ostatuan

Mirabe batek esan zion:

—Ai beza, aitona; numero zienen beańik izaten baidu, emen dauka.

—Eztiñat nik loteria beańik; loteriako biletia bańo obe diñat nik, lo egiteko oe ona. Quita loteria y dame lo-tegia.

—¿Erderaz ere bai al daki?

—Bai: i jaio bańo lenagotik ere.

—Barka beza ba, número zien ere gauza beańa da ta.

Nekez adierazi zion mirabiak, zertako zan número zien, eta etońi zitzaion ara juań biańa ere.

Sartu zan gelatxoan, bańa gauz aiń eder eta garbian bere lanak egiteagatik, ¿zenbat pagatu beańko ote zuan? Dana dala; etzeukan astirik itxedoteko.

Egin zituan bere lanak, bańa andik irtetzeko, atia eziń idiki izan zuan. ¡A! an zegoan zintzilik soka bat, txilinen bat jotzeko izango zan, atia idikitzera norbait etońi zediń, bere eńiko eńetore etxearen sańeran zegoan bezela. Tira zion sokari ta uste izan zuan mangaren bat

gañian zuala. ¡Ango urkoñont otsa! Asi zan «auxilio» deadañez ta ate joka guzia puskatu beañez; jendea bildu zan, atea idikire bai, eta tximista bezela an joan zan igesi Joane.

Eztago esan beañik jendeak zenbat bañe egiñ zuan Joaneren lepotik, baña etzitzaiion alaere oni galdu apaltzeko gogua.

Orain apaldu eta
ondoren oera:
txañagorik ezpada
biziko al gera.

Bigaramon goizian.

—¿Ondo lo egin du, aitona?

—Eztiñat ba begirik batu gau guzian.

—¿Zer izan du ba?

—Argia itzali nai ta ezin.

—Asko zukean ba botoi auxe estututzea (eta... itzali zuan mirabiak argia)*

—¿Eta piztu?

—Onelaxe; beñiz ere botoia estututa.

—Oraiñtxe sinisteiñat sorgiñak ba dirala. Gau guzian or aritu naun putz eta putz argiari, ta ezin itzali, ¿ta orain ofen eñez? ¿la nik? (Eta egin zuan berak ere).

Eskuak ondo garbitu zituan sorginkeriararen bat itxatsiko ote zitzaion belduñez, ostatua pagatu ta Donostiari agur egin zion eun ta santa sekulako.

Ni etoñi artian
beñiz Donostira,
bizi diranak, ilko
sekulan eztira.

Etixeruntz Trenian.

—¿Nik bilete beña artu? Enaiz Anton. Atzokua nai-
koa det (esaten zuan Joanek bere artian)

—Ola, gizontxo.

—Gizontxo, ni, zazpi aruako gizona?

—Barkatu, ba, barkatu: ia biletia.

—Biletia emen daukat, baña ez atzo bezela zuri
eman eta zuk bi zulo egiteko.

—Tira, tira; presaka nabil eta..

—Zuaz ba auñera presa ba dezu, ni zirikatzen den-
bora galdu gabe.

—Betor, betor agudo bilete ori.

—Ez eman: deadar egin zuten trenian zijoazen gaz-
te batzuek, biletia zurea da, eta ematen ba dezu, ufena
zizkoa (poltsa) eskatuko dizu.

Ango bañe, deadar eta eztabaidak trenaren ots-
guzia bañore aundiagoa ateratzen zuten. Etzegoan ema-
teko ustean, baña mikelete batek esan zion, ixil ixilik
belafira, obe zuala ematia, eta nekez badare, eman
zion.

—Adiskidea, bilete onek eztu balio.

—¿Eztuala balio?

—Ez.

—Amairu txakur txiki pagatua da ba.

—¿Noiz?

—Atzo.

—Baña gaur eztu balio.

—Atzotik gauñera ¿ofenbeste galdu du? Atzo be-
zela dago ba gaur ere bilete ori; bakañik bi zulo dauzka
geiago eta oiek ere zuk egiñak.

Asi ziran beñiz ere eztabaidan eta iskanbilan, eta
Joanek ogei ta sei txakur txiki pagatu bear izandu zi-
tuan, baña baita eñecibua kendu ere dirua eman zionari.

Baña etziran emen amaitu Joanen pestak.

Bero bero egiñik nun arkitzen zan etzekiala zijoan.

Usurbilen jetxi bear eta, etzan oartu. Oriyora uferatu, eta beriz ere biletia eskatu zioten; eta beriz ere iskanbila beñiak. Jendeak zezenak egin zituan Joaneren bizkañetik; beste bederatzi txakur andi pagatu bear izandu zituan.

—Ori lapuñeta da, zion Joanek: baña berak ere ba zuala erua esan zioten gazte aiek: biletetik ez emateko, bestela zizkoare (poltsa) eskatuko ziola, eta ala atera zan. Bere aseñean bota zion bendizioa trenari esanaz:

—De lapuñes y sorgiñes libera nos Domine, asta nunca más. Amen.

Guziak dira emen
sorgiñ ta lapuñak;
agur nere zizkoa
ta diru apuñak.

Etxian

—Ongi etofri, Joane; ¿nola ibili zera?

—Ainbestetxoan ere ba, Praiska.

—¿Zezenik eta ikusi al dezu?

—Nerau izandu naiz zezen.

—Ez ordia Donostiako plazan.

—Ez; ostatuan eta trenian.

—¡Jesus! ¿Nola ibili ote da gizon au? Ez al du jakingo nunbait EUSKAL ESNALEAK. Bestela Mendaroko apaizari esango dio zer gertatu zaizun ta erukiña zera. ¡Mutila dek ba Mendaroko apaiza! Dakizkian xelebrekeri guztiak EUSKAL ESNALEAN jartzen omen ditu.

—Edeña den orixe. Neri gertatutako guztiya pape-rean ipintzen ba du beintzat, enau ni iñork geiago erian

ikusigo. ¡Orixe palta diagu! ¿Ortarako al da EUSKAL
ESNALEA? ¿Gizonak pafegafitzat artzeko?

—Ez; esnatzeko.

—¿Nor esnatzeko?

—Euskaldunak esnatzeko.

—¿Euskaldunak esnatzeko? Esnatu nai duana dijo-
ala Donostira; esnatuko dute bai, añanok ezpadu. Ez,
nere gauzarik ez da beintzat EUSKAL ESNALEAN
azalduko. Orainñxe egingo diot eskutitz bat direktoriari.

—«Siñor Direjidor de EUSKAL ESNALE. Muy Sr.
mio: Quituste ese periodiko que esta en bano. Basta
aser un biaje a San Sastian. Ya hay muchos euskal-
esnales y erdalesnales. Si estan despertaos, no necesi-
tan esnales; si estan durmiendo, ya les despertaran en
San Sastian. Su apetismo.

Joane»



ASTO PLAUTERUA

I

—Ai beza, kepe jauna.

—¿Zer degu?

—Asto bat plauterotu nai nuke.

—Ez naiz ba ni plauta jotzalea ta besteren bat bi-
latu bearko dezu.

—Neri ba bedofek egingo dirala esan didate ta...

—¿Nik?

—Bai; kaŕopeŕileko kepia bedori omen da ta, ikusi
beza paper au:

—Ia, ia... betor paper ori... ikusi dezagun zer
dion... «Jefe jauna: egin beza mesede, asto ori pautu-
ratzeaz Bilborako».

Jefeak bere artian esan zuan: —¿Berau ote da astua?
Etzekian zer esan, baña galdetu zion:

—¿Asto ori bi ankakoa ala laukoa da?

—Laukoa. ¿Izaten al da bi ankako astorik?

—Bai, ba dira banakatxo batzuek.

—Eztet ba beñere ikusi.

—Ba jartzen bazera ispilu baten aŕean, ikusi ze-
nezake.

—Ba nere astuak lau anka dauzka.

—¿Nun dezu ba?

—Ostatuko okuluan.

—Ekaŕi zazu ba.

—Berealaxe.

Ba zekafen sokatik Txominek bere astoa eta jefeak
zion:

¿Zein ote da bietan
fauturatzekoa,
aufetik datořena
ala atzekoa?

II

—Ai zazu, Mari Joxepa.

—¿Zer degu Markos?

—¿Ba dakizu zenbatian saldu duan Txomin Tořek bere astoa?

—¿Zenbatian?

—Ogeitamar durotan.

—Beraz gureak balio ditu beřogei.

—Baņa plauterotu ta saldu omen du.

—¿Eta nork plauterotu dio?

—Keřopañileko kepiak.

—Guk ere emango genikio ba zerbait plauterotutziaren.

—¡Emakumea! ¿Eztaukagu ba etxian pleutero edeřa gure Josiņazio?

—¿Zer ba, plauterotutzea plauta jotzen eraskutea al da?

—Bai, ba; ta gure Kilos'ek (au zan astoaren izena) Tořen asto zařak baņa len ikasiko du edozer gauzare.

—Ea ba, Josiņazio: gaur bertatik asi bear dezu astoari lezioak ematen.

—Lezioak baņa obe luke gaixoak pensu ona.

—Emango zaio ikasten ba du.

—¿Pentsua jaten?

—Ez, plauta jotzen. Pentsua jaten len ere ba daki.

—¿Noiz ikasi ta?

—Egunero jaten du.

—¿Pentsua bai?.. Makiladak pentsua balira...

—Ara seme. Guar bertatik jo bear dezu okuluan gauero plautarekin San Inazioaren martxa, astoak ikasi arte.

Bai, ta arterañoako bizia, pakea ta osasuna eman degizkigula Jaungoikuak.

Eta semia sañi
pentsatzen egon zan,
etzeudela zoroak
danak Zaragozan.

III

Ixilik zebilen Markos bere ustez, baña zurumufua ba zebilen auzoera guzian. Batzuek zioten Josiñaziok astoari solpan erakusten ziola eta Kilo (astoa) ikasiaz zijoala; komediante batek astoagatik mila eñial eskeñi zituala, Markosek etzukiala emango mila pesetan ere; astoaren afean dantzatzen zala ari erakuste afen, eta nik eztakik gezur edo egi, beste zenbat kontu.

Baña oso ziur jakin zana zan, gauero egiten zala Markosen etxeko okuluan erakutsaldia.

Gau batian ixilka-mixilka jende asko uferatu zan Markosen etxe ondora zerbait susmatu naian.

An zijoan sakristauare bere astotxo Limonekin eta erakutsaldia aстера zijuanian, nonbait usaira oartu zan Kilo, ufean zegoala bere anai Limon, eta pozturik, ari agur egiteko, egin zuan afantz andi bat: Limonek egin zuan beste bat, eta ordu erdi batez etzan entzun astoen afantza baño. Bertsolariak ziruditen.

Bi astoen afantzaz
egiñik orkesta,
gau artantxe betiko
amaitu zan pesta:
arterañoako lanak
asko ziran kosta,
geroztikan ezere
beririkan ezta.

GEZUR ONTZI

I

Etzuan ba gezur askore esaten: baña... mingaiñ txararak izen orixe egotzi zioten.

—Asko ez beraz ¿e?

—Ez ba: noizik beiñ.

—Eta noizik beiñ ori ¿egunerakoa al zan?

—Bai, jauna: ta egunian maiztxore bai, baña asko askorez; bakoitzian bat.

—Bat, baño ez bakoitzian? Etzera beraz oraindik ijitoak adiña.

—¿Nola ba?

—Ala abesten dute:

Nai baldiñ ba da beti egia

Gure aotik aditu,

Ijito onak itz bakoitzian

Bi gezur esango ditu.

—Ez ba ofenbesterañore: gezurtxo batzuek ugari-txo bai, baña iñori kalterik ez.

—¿Mesederik?

—Etxerako.

—¿Nola ba?

—Bost balio ba ditu gauza batek, sei artu al bali-tez edo zazpi edo zortzi artzera...

—¿Eta erosliari ez diozu ortan kalterik egiten?

—Ez ba, jauna. Nai ezpadu, utzi dezala ta...

—Eta ¿jan bear badu?

—Ordaindu dezala.

—Eta ogi baten eñeal bat geiago eramatea ¿ez al da lapufeta?

—Ez, jauna; ori da, apufeta, au da, apurka—apurka:

Apuř—apurka egiñ
oida lapufeta,
Naiz da beste izenez
Deitu apufeta:
Apurtxo askorekiñ
Sakua bete ta,
Jasotzen izango da
Naikua lofeta.

II

Buruko miñ apurtxo bat eman zion gure gezur ontziri berso onetxek. Lapufeta oben edo pekatu da, ori ondo zekian, baña apufeta... etzuan ba uste, aintzakoizat artzeko gauza zanik, baña apufetatik egiten ba dira lapufetak, eta lapufeta pekatu izan, apufetak ere dira pekatu-kumeak, umeak azi egiten dira eta gero...

—Onetan loak artu zuan eta asi zan ametsetan.

—Testamentua egitera zijoan eta ekaři azi zituan bere auřera etxian zituan uře ta zilařak. Zaku aundi bat ere an zekarten mořoyak oso astuna, tatařasean. Ba zeauzkan gañean itzen batzuek idatzirik onela: apufetak, pekatukumeak, beartsuen izerdiak ħnorenak?....

—Laři-laři ta izerdi patsetan esnatu zan. Bigaramonian goizen-goiz juan zan Don Pilipe'gana zer gertazen zitzaion esatera.

—Onek esan zion bařuko pakea nai ba zuan, len lau urtean, lau balio zuana, saldu ba zuan seian, oraiñ saldu zezala bian beste lau urtez.

Besteren gauzarikan
Ez beñere artu,
Eta artu ba dezu

Atzera biurtu.
Eta biurtutzeko
Ez pazaude gertu,
Ezingo zera zeru
ederean sartu.

III

—Lau urtian gezur konpontzen nekatu. Gezur ontziren izena nere buruari batu eta ainbeste nekeren buruan ¿nere irabaziak atzera biurtu?

Ikusi egingo degu. Mediku batek gaixoa sendatu eziñ duanian, arbolariori deitzen zaio. Ortxe dago Zirikiñote jauna, sasi letrau jakintsua eta, ba nua beragana.

—Ala zion gezur ontzik eta jua zan.

—Zirikiñote jauna, esan zion, lau urtian ibili naiz gezur konpontzen eta...

—¿Ezur Konpontzen?

—Ezunik ez, baizik gezur konpontzen.

—Eztezu ba lanbide ezeza. ¿Eta?

—Ainbeste nekerekiñ irabazitako diru apurak... atzera biurtzeko..... ta.

—Aldapa gora noski ¿e?

—Bai ba, jauna; ta...

—Ta ¿zer? ¿Aldapa ori kendu nai?

—Nai, nai... nai... bai: baña... baña...

—Ortarako lan asko egin bear da ta, atoz zortzi egun bañu, ordurako plano a aterako det eta, alkar adituko degu.

—Ondo da, Jauna.

—Zortzi egunen buruan jua zitzaion gezur ontzi Zirikiñote'ri, eta galdetu zion:

—¿Ezer eguiñ?

—Bai. ¿Semerik ba dezu?

—Bai, bat bakafá.

—¿Nola du izena?

—Lontxo.

—Egin ba testamentua, esanaz bera uzten dezula zure ondasun guzien jabegai edo eredero, baita zor guzien ordaintzale eta, don Pilipek zuk egiteko agindu dizun guziare ark egin dezala.

—Ondo da, jauna, eta ¿zenbat da berofen nekea?

—Zuretzat ba, asko ezpaderitzu amartxo bat duro.

—Ondo da, jauna: testamentuan jariko det, eta nere semeak ordainduko dio eta agur."

—Igesi juañ zan gure gezur ontzi, eta Zirikilote asi zitzaion deadarka: ¡Zu, zu... don... don... gezur... edo Gumersindo..!

—Bai, bai, bai,—erantzuten zion Gezur-ontzik: amar duro bai, testamentuan; eta izkutatu zan egundoko aguduen tximista bezela: eta Zirikilotek sartu nai izan zion ziria Gezur ontziri, onek sartu zion ari.

—Damu zuan Zirikilotek baña: berandu zan.

Gizonaren bizia
Geiena ametsa,
berak nai lukeana
Sinisten ezeza:
Ezpañdu ezagutzen
Bere ezer-eza.
Alpeñik damutzea
Dala jakiñ beza,
Ura juañ ondorian
Egitea presa.



ZIRIKIĻOTE SASI-LETRAUA

Ziriako zuan izena berea, baña Zirikiĵote deitzen zioten, askotxo ziralako, sartzen zituan ziriak.

Auzo guzian etzan gizon jakintsuagorik bera baño apaizaz ostean, eta apaizari teologian barkatzen zion, baña gañerakoan ez. Gramatikare apaizak jakingo zuan latiñezkoa, baña berak zekian gramatika pardel, eta pardeleko gramatika au teolojiaren berdintsu; argatik esaten zan parpar (berdin) berdintsu. Ala dan edo ez-tan eztatigu, baña dakiguna da, bere kontura artzen zuan auzirik, etzuala beñere galtzen ezta danik eta afa-zoi gutxiena zuanik ere, bada bere gezur ta abar, naste-bofaste guziakin beti ondo irtetzen zan. Emendik jafi zioten Zirikiĵoteren izena, eta berak ontzat artzen zuan. Beste batzuek deitzen zioten Kijote, eta ori ere ontzat ematen zuan.

Gurasoak eskola
eman baliote,
letrau ona izango
zan Zirikiĵote;
baña nola dabilen
naikua arlote,
jafi diogu izen
beria Kijote.

II

Peru estu zebilēn, multaren bildufez, Txantoren salian gurdiren batzuek egur ebaki ta etxeratu zitualako.

—Zirikiĵote jauna, esan zion Peruk. ¿Zer egiñ nezake?

—Atera mugafia ta ipiñi goiko ate saferaren ondoan, gaur gabeen ixilik, eta orduan, zuk egufa ebaki dezun lekua, zure sala izango da.

Ala egin zuan Peruk.

Bigaramonian bildu ziran auzia erabakitzera Txanton, Zirikilote eta besteren batzuek.

—Mugafia erabili ta dago, esan zuan Txantonek, len beko efekaren ertzean zan.

—Nik eztet erabili, esan zuan Peruk.

Baña lufak ezagun zuan erabili befitakoa zala.

—Baliteke-esan zuan Zirikilotek-lufa ibiltzea, bada jakintsuak diote eguzkia geldi dagoala, eta lufa dabilela, baño mugafirik dabilenik eztet beñere irakufi.

Utzi zuten auzia Zirikiloteren eskuetan, berak erabaki zezan, eta onek, gauza ondo erabakitzeko eskatu zuan iru eguneko epe edo plazua. Guziak ontzat eman zuten onen eskaria.

Etzuten ezagutzen

¡Ai au miseria!

Zirikilotek sartu

nai zien ziria.

III

Jaunak:--esan zuan Zirikilotek laugarren egunian-Jaungoikuak etzuan iñun ere mugafirik sartu eta gizonak bai. Baña guk, arkitu deguna efespetatu bear degu. Beragatik mugari onek aditzen ematen duanez Peruk bere salian ebaki du egufa eta eztio zofik Txantoni.

Etzuan Txantonek ontzat eman nai izan Zirikiloteren erabakia; baño... ¿zer egingo zuan aren afazoiak aditurik?

Ondo zekian Txantonek Zirikilote nor zan eta esan zuan:--Nik, onen onena izango det eskupekoren bat

eman eta Zirikiłoteren borondatea irabaztea; eta ala esan zion:

—Zirikiłote jauna, eztit miñik ematen, oraiñdaño Peruk nere saletik eraman duan egufak, baizik aufera eraman bear duanak, mugafi ori or gelditzen bada. Emango nuke zertxo bat...

—¿Zenbat?

—Paretxo bat duro, bai.

—Betoz ba.

—Tori-esan zion, eta Zirikiłotek arturik esan zion onek: Zuaz etxera oraiñ, eta lo egizu ezeren kezkarik gabe.

Ufengo egunian juan zitzaion Peru Zirikiłoteri eta esan zion: Eskeñak, Zirikiłote jauna, multatik libratu nazulako. Orixe 'bakañik nai nuan. ¿Zenbat da zure nekea?

—Mugaña ate sañeraren ondolik eraman ezazu len zegoan lekura, eta eztizut geiago eskatzen.

Ala egin zuan Peruk, gañera duro bat propiña emanaz.

Ala egin ziran pakeak. Txanton eta Peru elkañen adiskide egiñik gelditzen ziralaz.

Zirikiłote beñiz bieñi adaña jotzen.

IV

Txanton poz ba da iere
Peru da poxago,
Zirikiłote beñiz
pozez lertzen dago:
iru duroz sakela
dauka bero bero,
¡Ai ofelako asko
erian balego!

Zirikilote jaunak
ba dauka grazia,
ofela amaitzeko
bi oien auzia:
gramatika pardela
ondo ikasia,
sasi letrautzat dauka
onore guzia.



Zendoya

PEÑATZAIĒ - MEDIKUA

I

Matrako gizajoa gaizki zebilen azpalditxoan eta bere gaitza jakiña zan: Ardo geiegi edanarena.

Ekafi zioten sendagile edo mediku sonatu bat.

—¿Zer modu? galdetu zion sendagileak.

—Ondo... naian, jauna.

—Askok daukaten gaitza da, baña laister ondo jakiko zera.

—Ori bear degu ba.

—Pultsua artu, mingaiña ikusi ta beste onelako gauza, sendagileak egin oi dituztenak egin ondoan esan zion:

—Iru gauza egin bear dituzu zintzo.

—Esan bitza.

—Lenengoa bi ilabetez ardorik edan gabe egon: bigarrena...

—Ez beza esan alpeñik, eztet egingo ta. Ori baño jakinduri geiago ezpadauka, gure atsuak baño geiago eztaki, eta bijoa etofi dan bidetik.

Sendagileak etzuan
An nai izan egon,
Eta etxera joan zan
Esanikan «gabon».

II

—Peñando peñatzailea, aberien sandagilea zala ta...

—Aberiak sendatzen ba ditu, ni ere sendatuko nau, esan zuan Matrakonek, guk ere animaz osteangua aberiak bezela degu ta. Datoñela Peñando.

Etoñi zan Peñando; ba zekian beste sendagileekin zer gertatu zan, baña ezer ezpazekian bezela, galde-tu zion:

—Zer beñi adiskidea? ¿Nola zaude?

—Exkax antzean ba.

—Ea pultsu ori... ea mingaiñ ori... ondo da... ez beldurtu, baña lenengo egiñ bear dezuna da ur gutxi edan.

—Ortantxe ba atsegin emango diot... Urik batere edan gabere biziko nintzake.

—Ez, edan biar dezu gutxi bada ere, kutxaratxo bat botika boteaz baso bakoitzari.

—Nik ba baso bat ur aste guzian ere geienaz edango det.

—Dana dala. Beñepeñiñ nik bialtzen dedan botikarekiñ artu.

—¿Eta ardorik?

—Ardoa... ardoa... ardoa... bai, bai, baño oraiñ ez lenengo zortzi egunez.

—¿Ardorik gabe zortzi egun? neretzat zortzireun.

—Ba iru egunez badare egin bear dezu.

—Legorte luzetxoa deritzat, baña egongo naiz.

Iru egunak ziran
Izan txit luziak,
Nai baño len etziran
Igaro guziak,

III

Irugañen eguna iluntzian, etzitzaion aztu Matrakon'i sendagileari galdetzia: ¿eta ardoa?

—Bai biartik; ekañi degizubela ardoa, baña ez no-la naikoa, baizik Baldepeñaskoa.

—¡Beajondeizula zuri. Ori, ori, aldepeñasko ardo edefa ekafi dezala gure atsuak.

—Gau luzetxea izan zan: lorik ere ezin egiñ izan zuan ardoa edateko pozian.

—Eguna argitu baño len deitu zion bere atsuari, ekartzeko len bait len ardoa, ez edozeiñ, baizik sendagileak esan zuan bezela, aldepeñaskoa.

—Aldepeñaskoa ez, baizik Baldepeñaskoa, esan zuan sendagileak, erantzun zion emazteak.

—Berdin dezu. Ark erderaz esango ziñan; eta ibili aguro.

—¡Ai ura naigabea! Aurreko egunian amaitu omen zan Baldepeñasko ardoa, eta manda-zaia etzan etofiko beste iru egunian...

—Iru egun nekez igaro, lau ta bost ere bai, eta manda-zairik agiri ez. Seigafen egunian manda-zaiari kontrabandua ařapatu ziotela. Uřenekoan mandoa ostikoka asi, zagiak bota ta lertu ziralta, eta beti iru egunetik irurako epe edo plazoak jaři bai, bařa beiñere etziran betetzen.

Melilan moroen artean preso zeudenak obeki zeuden Matrako gizajoa baño, berak zionez. Aitzaki ta maitzaki, ilabete igaro zitzaion ardorik ikusire gabe, bařa berak ezagutzen zuan obetuaz zijoala, eta nunbait ere urari botatzen zion botikak bazuala indařa osasuna emateko. Ala uste zuan Matrakon'ek.

Ilabete igaro
gezur ta abarez,
bigařena etzaigu
izango ain eřez.

IV

Kostako zan beste ilabete legortean igarotzea.
¿Bařa zer aitzeki atera zezakezu? Ala beařean ere

lenengo astean katafoa, bigaŕenean, suak eŕe zuala ardozalearen etxea, ta zagi guziak ustuz ziralaz sua itzaltzeko, urangoan gobiernuaren eŕuz etzetofela ardorik, guziak Pranziara eramaten utzi zualako, eta ala ta onela igaro zan bigaŕen ilabetea ere ardoaren tantorik usaituregabe: baŕia Matrakon sendatu zan eta or mirari edo milagroa.

Juezak jakitean
gertakari ori,
beregana deitu
zion Peŕandori.

V

Juezaren auŕean

—¿Nola dezu izena?

—Peŕando.

—¿Opizioa?

—Peŕatzalea.

—¿Mediku ere bai?

—Aberientzat bai.

—Eta ¿zer egin diozu Matrakoni?

—Sendatu.

—¿Ua aberia al da?

—Bada edo ezpada, beŕepein sendatu det.

—¿Nola?

—Bi peŕa ezaŕi ta.

—Orixe egin dan edo ez jakin nai nuke.

—Naikua luke ba, txiŕnel edo alguazil bat bialtzia, Matrakonen boten eske ta jakingo luke. Juan zan txiŕnela eta ekaŕi zituan botak eta egiaz peŕaz josiak zeuzkaten zolak.

—Ondo da, esan zuan juezak: eta egiaz iŕor bada eŕian peŕatzea merezi duanik, Matrakon da.

—Ni, ba, mundu guzia serbitzeko prest nago, ta be-
doñek ere iñoizko denboran bear izango ba nindu.....

—Eztakiola nai Jaungoiko gure jaunari... eskeñik
asko.

—Ondo geldi bedi ba, jauna, ta agur.

Egunero peñatzen
asto edo mando,
lana gogoz egiñaz
bizi da Peñando.
Matrakon gaxoare
ipiñi du sendo,
bi ankako asto au
peñatuaz ondo.



Peñdoya.

MAKIĀA

I

Ba zetoŕen Juan Kutz Markoldeiko beste urteetan bezela bere makilarekin; eta an zegokion zai giza mor-do bat.

Urteko aitortze edo konpesioa egitera zetoŕen paz-koako denbora zan bezela. Etzekian irakurten eta idaz-ten edo eskribitzen ere ez.

Oroikin edo memoria laburtxoan zuan eta bere oben edo pekatuak an zekazkian makilan koska batzuen bi-tartez berak gogoratzeko.

Urte artan koska bat besteetan baño andiagoa zan, eta gizonak asi ziran, koska ark zer esan nai zuan, ate-razi naian. - Ori - zion batek-birauren bat da. - Besteak zion: ez, esan duan gezuŕen bat izango da. - Uŕengoak: - ostu duan bildotxen bat.

Eta ala bakoitzak esaten zuan bere iritzia.

Juan Kutzek esan zien: Jaunak, ez alpeŕik nekatu: urtxoan zabilzate, baña iñork ere eztiozute igafi.

An sortu zan, nundik jakin gabe, Anemari Uŕitz-peko atsua eta esan zuan: - Koska ofek esan nai du emaz-teari ixil poltsatik ostu dion dirua.

Miñ eman zion Juan Kutzi atsuaren ateraldiak.

Egia zan; baña? nundik jakin zezakean, iñori ere esan ezpazion, eta bere emaztiak ere igafi ezpazion?

¿Sorgiñik eztala? Ezta izango: baña atso deabruz koren batzuek baietz ere esan diteke...ote diran.., eta batez ere Uŕizpen; ala zion Juan Kutzek.

Andik auferakoan etzan beñere igarotzen Aitaren egin gabe Uŕitzpeko ataritik, eta gañera maiz abesten zuan onela:

Erakusten digute
sorgiñik eztala,
nik ezin esango det
dan edo ez ala:
baña Anemarik dit
ematen itzala,
jañen! Jaunak argandik
aldendu gaitzala.

II

Ba zetoñen urfengo urtean ere Juan Kutz bere makila beñiarekin eta Urutzpeko ate aurfetik igarotzean Aitaren egin ba zuan ere, etzion ulertu edo entenditu izan bear ango txakufak, bada zaunkaz asi Juan Kutzi jañai-ka, makilatik oratu, kendu ta eraman zion.

—Bapo zio-esan zuan Iuan Kutzek; gelditu nauk oben edo pekaturik gabe, eta biurtu zan bere etxera, esanaz bere artian:

Pekatu nik egiñak
txakufak eraman,
¿alare oien kontu
bearko det eman?
¿Zer esaten dit neri
bedoñek, Prai Roman?
Jakintsuak dirala
egongo Eñoman.

III

Juan Kutzen bilduñan zan, Anemarik ezagutuko zituala makilatik bere oben edo pekatuak, eta jakinera-ziko zituala eñi guzian.

Bitartean Urutzpen ba zebiltzen komediak. Anemarik astintzen zituan mutil koskoñak Juan Kutzen makilaz, eta mutilak zioten:—¿Markoldeiko agure aren

oben edo pekatuak guk ordaindu (pagatu) bear al ditugu? ¿Ark pekatu egin eta guk penitentzia? Goiz baten mutil koskor aietako bat mendira zijoan, artu zuan Juan Kutzen makila eta Markoldeiko aúfean sukaldeko leiotik bota zuan barura, esanaz: Pekatuak egin dituanak, jaso ditzala.

Loteriak baño poz aundiagoa eman zion Juan Kutzzi makilak. ¿Nundik etoñi zegikion eskuetara makilura?—Sorgiñak izango dira edo eztira, baño San Antonio ba da. Ez nion, ez, alpeñik eñezatu.—Ala zion Juan Kutzek.

Orain emango zukean edozein gauza, makil uraxe elizaraño eraman al izateagatik, iñork ikusi gabe; baño ¿nola? San Antoniok argi egingo zion. Euritarako edo guardasol zar bat erdi apurtua ba zan etxean, antolatu edo konpontzeko makil beña bear zuana, eta Juan Kutzek bere pekatudun makila, zafaren eskulekuarekin ipiñi zion eta etzan asafe.

Ba zijoan pazkoazko egitera, eta zai zeuden bere adiskideak bafe batzuek egiteko. Eldu zan Juan Kutz baño makilik gabe.

Mila galde egin zizkioten makilagatik, baño erantzun zien, nola denborak euritarako itxura zeukan, naia-go izan zuala guardasola ekartzea, baño makila etzegoala uruti eta mutil azkarak ba ziran, arkituko zutela. Egin zituzten alegiñak, baño alpeñik.

Juan Kutzek egin zuan nolabaitere pazkoakoa, eta etxeratu zan Mañuekostako guda irabazi ta izango zukean bañore poz aundigoarekin bidean abestuaz:

Nai duanak jakin nun
dagoan makila,
ezteledila ibili
alpeñikan bila;

egiña gantikan zuek
neri burla mila,
Juan Kutz da adar jotzen
dakian makila.

PRAISKU-ZARAREN

KONTU BERIAK



I

- ¿Zer deritzatzu, Paisku?
- Zoro guziak eztaudela Zaragozan.
- Guzi-guziak eztira noski egongo.
- Ez; emen ere ba zebiltzak batzuek.
- ¿Zein dira ba?
- Egalariak.
- ¿Abiadoriak?
- Txoriburuak.
- Eztezazula orelakorik esan.
- Arazoia daukak: txoriak aseñatuko dituk, gizon oiekin konparatzen ba dira.
- ¿Zergatik ba?
- Gizon oiek bezelako astakeririk txoriak egiten ez tutelako.
- ¿Zer astakeri?
- Bat erori ta il dala, bestea mila zati egin dala, bestea tortila biurtu dala, eta alare auñera.
- Eztira ordia guziak il.
- Eta biziak ¿zer egin ditek ba?
- Gora ta gora igo.
- ¿Añano batek adiña bai?
- Eztet ori esaten; baña...
- Ba ainbeste zaratarekin, eta ainbeste gizon iltze-kin, añano batek adiña ezin egin ba ditek....¡bapo zio!
- Eziñ ukatuko dezu beñepeñ, gizon azkar eta jakintsuak ba daudela.

—Naigo diak nik asto bizi bat, mila gizon azkar eta jakintsu ilak baño.

—Astuak ere eztakit ba zugandik ufuti ote dauden.

—Ez, neronek ere uste diat, bat beñepein ufean daukadala.

—¿Astoa?

—Bai; ankabikoa baño...

—¿Nigatik esan nai al dezu?

—Ori ik diok. Ofelako egirik eztiat nik esaten.

—¿Egia al da?

—Beti iduki aut egizaletzat, et orain:

Nik esan nai nuana,
Eofek dek esan;
Or ezagutzen diat
Argiro nor aizan:
Aufferare ofela
Bearko dek izan,
Belafi bi eta lau
Ankakoan gisan.

II

—Nik ori esaten diat beti, Patxi.

—¿Zer?

—Gizonarentzat lanik asko ba dagoala lufean ere, aireetara juan gabe.

—Bai, Praisku, bai: afazoia dezu, baño airean ibiltze ori ere gauza atsegiña izan bear du ta...

—Bai: atxufean egitea baño atsegiñagoa, baño...

—¿Zer baño?

—¿Zer baño... baño... bidea labaña!

—Nai eztuana ezta juango.

—Ez, baño, nai eztuana il bai.

- ¿Zer naizu ba! Mundua beti ofela izan da ta.
 —Etzekiat ori, larogeita bost urte dauzkadalarik
 ere: baña dakiana dek, munduan beti izan bear izan du-
 tela, nere ustez, gizon buru gogofak.
 —Baña oraiñ, lengo aldian, jende argia dago.
 —Bai, bai, begietatik.

Begi argiak eta
 Adimentu sofak,
 Gauz onak entzuteko
 Belafiak gofak;
 Lafi ibiltzen gaituk
 Bildu arte lofak,
 Baña buruak beti
 Osoro gogofak.

III

- ¿Nundik gabiltza, Praisku?
 —Sermoian izandu naiz.
 —Ondo egingo zuan Praileak.
 —Bai, ark ondo egin du. ¿Guk ondo egingo ba gi-
 ñuz... aren esanak!...
 —¿Zer dio ba?
 —Or dabilzala arotu ta egalariak saguzafak diru-
 ditela, puskatxo bat igotzen dutelako.
 —¿Eta iltzen diranak?
 —Aiek ixilik daudela.
 —¿Orire esan du?
 —Bai, ta berak omen daki, nola igo diteken mila
 metro ta geiago, zerurañore.
 —¿Nola?
 —Jaungoikoaren legeko aginteak ondo gorde ta.
 Egalarien nagusiarri bialdu bear diot eskutitz bat.
 —Ondo egingo dezu.

Musiñor meo:

Pa no andar en alpeñikako de kosas komo saguzarres, ai tiene uste lesión y aprende bien:

Si quieres subir del suelo
Mas ke mikilímetros,
Guarda bien los mandamientos
Y subirás hasta sielo.

—Segur servidor

Draisku.

AXERI TA TXORI

I

Biak ere mutik politak ziran.

—¿Zein ote zan obea?

—Ez bata ta ez bestia.

—¿Nola ba?

—Obea izateko, lenengo ona izan bear du, eta gero obea, izatekoz ere. Baña bien artian etzanbat ere onik.

—¿Zer auzi zerabilten ba?

—Ogei erealeko bat dala ta eztala. Axerik dio Txorik eman diola. Txorik dio ark eman ziona ona zala. Ortik eta emendik elkar ukabilka puñukatu baño len, esan zuten juezagana juan bear zutela.

Biak ańazoia ta
biak ez ta baidan,
biak nunbait berdintsu.
Zein da eztakidan
bakoitzaren izena
nola izan oi dan,
obrak ere alaxe
diote nor zein dan.

II

Jueza ikaratu zan aien afazoiakin: ogei efialenak ez ezik, ogei milarenak ere ba zituzten, eta esan zien gauzak ondo egiteko denbora bear zuala; juateko orduan eta biurtzeko lau orduren buruan. Axerik eta Txorik egin zuten tratu bat pakez konpontzeko beren artean. Juango ziran apaltzera Korneten ardantegira, ta emango zuten aparria ordaintzeko ogei erealekoa, eta ilun samafetan pasako zan.

Kontzientzia ona
zuten biak ere,
apaltzeko asmoan
galerarik gabe.

III

Jauna, esan zioten juezari, konpondu gera erdi bana galtzeko, eta erdi bana jasotzeko ogei efialekoa. Juezak esan zuben bere artian: «Axeri ta Txori izenen jabe zerate, eta gizajoren bati ziria sartu naiko diozute». Beraz, esan zien juezak ¿erdi bana jasotzeko konpondu zerate?

—Bai, jauna.

—Betor ba ogei efialekoa.

—Artu beza, esan, eta eman zioten.

Jueza efementaria zan, eta efeminta batekin erdi-bitu eta eman zien bakoitzari ogei efialekoaren erdi bana.

Agur Axeri eta
agur ere Txori,
utzi aparria ta
eutsi ziri ofi.

MUTIKO ERNAIAK

I

—Anton eta Pontxo, biak ere mutiko politak ziran, besteren moñaletik ogia jateko, baña berenetik etzien iñork jango. Eztago beldurik.

—Aizak, Pontxo: gaur ire eguna dek eta merienda-tu egin bear diagu.

—¿Eta ordaindu (pagatu)?

—Bein jaten deguna etzigutek atzera aterako ta...

—Baña espetxe edo kartzelara...

—Laister aterako gaituztek, an ere jaten eman be-
arke zigutek eta.

—Oiek berak ere, gu ez ezik, mutil pizkoñak izan
bear ditek iñoren moñaletik ogia jateko.

—Bai, baña guri etzigutek jango.

—Ez; etziok beldurik.

Nekerik artu gabe
nai lutekenak jan,
buruz badare egin
bearko dute lan.

II

Ardantegian jan edan egin ta ondorian asi ziran ezta
baidan.

—¿Nai dek apostu egin ik baño len egiten dedala
nikjuan ta etofí emendik loretake itufira, eta andik onera?

—Ezetz.

—Baietz.

—Merienda nork ordaindu (pagatu) apostu.

—Berialaxe. Esan zuan begira zegoan batek, aiek
lasterka astean uste zuala arin egingo zutela juan etofia.

—Bai, esan zuan beste batek, sakelian (poltxikoan) ere eztute izango pisu andirik eta.

—Sakelian izan ba zuten dirurik, etzuten apostu egin ta or bařena igesi lasterka juan beařik.

—¿Igesi?

—Nik ala uste.

—¡Ori esatea!

—Eta izatea.

—Eta ala; etzan izan aien beřirik ondorengo sei ilabetian.

Ez itzultzeagatik
atzeruntz begiak,
kiak egin zuana
egin zuten biak.

III

Urte baten buruan agertu zan egun batian ardantegiko atian mutiko aietako bat eta ezaguturik ardantegiaren jabeak, esan zion:

—Pontxo, ¿noiz ordaindu bear didazu, juan da urtian emen egin zenduten merienda?

—¿Nik? Antonek ordaindu bear du.

—¿Zergatik?

—Apostu ala egin gendualako.

—¿Nola?

—Azkeneko etortzen zanak ordaintzeko.

—¿Eta zu al zera lenengo etořia?

—Bai.

—¿Noiz?

—Oraitnxe.

—¿Eta Anton?

—Datorenean ikusiko dezu.

—Loretako iturřira juan etoři egiteko urte bete be-

ar izan ba dezu, Elkanori bezela taluntz ede estaturen
bat jasoko dizute.

—Ala izan dedila.

Pontxo ta Anton, biak
mutiko ernaiak,
lanak ematen dizte
ondo bizi naiak.
Dirurite dirala
elkafen anaiak,
espetxe baterako
jai zer maisu gaiak!



Handwritten signature or mark.

MUTIL - ZARARI

Ezufeetan guri ta
mamitan igara,
kastuaren bildurez
utzirik bizaia;
txoriak bildurtzeko
ez litzake txara,
ora nolakoa dan
gure mutil zara.

Poltsa zerbait betia,
baña txit estua,
zekenian beñiz
bizi prestua;
beste etsairik eztu,
bakañik kastua...
Lagunik maiteena
du bere astua.

Beñere galdu gabe
dago esperantza,
arkituko duala
andre aberatsa:
emango balitzayo
aora beatza,
legoñetikan luke
egingo arantza.

Bi aldiz poñu salda
artu egunian,
gañian meretziña
konbeni danian;
au da: odol-kolpeak
jotzen duenian,
bestela beti dago
osasan onian.

Ekañi bear ba da
etxera jaboya,
garesti dagoela
mur-mur-mur sermoya;
urtian ontz erdi bat
artzen du doi doya,
gorputz guzian dauka
egiña erdoya.

Iru ontza lodi du
lepo edo zama,
tisikoen itxura
berekin darama:
munduan zabaldua
dago onen fama,
jondo biziko da au
artzen duen dama!

(Dama batok.)



GUZIA NAI DUANAK, GUZIA GALDU

Pifiñ txofoškileak uda baten irabazi ta aurfatu zituan bi mila efeal. Guzi guziak ufe zařetan jaři ta sartu zituan toles toles ipiři ta kaňabera baten bařuan.

Ba zijoan bere eřiruntz, atez ate eskian, Galizia-
ra, ařopa zartxo batzuek jantzi ta beartsu bat bezela.

Mendi baten atera zitzaizkan lapuřak, baňa ikus-
tean ain arlote ta eřukaři, galdetu zioten, zenbat legua
zeuden andik bere eřira, eta erantzun zien, ogei legua
zeudela, eta eman zizkioten ogei eřial.

Damutu zitzaion ogeiren lekuan, beřogei esan
eza eta gezuřa esateaz bilduřik etzuala, biurtu zitzaien
atzera bidetik esanaz, kontuak ondo atera etzituala len,
eta orain obeki aterarik, esaten ziela, ogei legua ez,
baizik beřogei zeuzkala.

¿Zer? esan zioten lapuřak. ¿Oraindik geiago nai
dezu? Eztago emen Antoňik.

Kendu eskuan zemakin kaňabera eta berarekin
joaz asi zitzaizkan bizkařa berotzen; ausi zan kaňabe-
ra eta an juan ziran ufe zařak pařastean.

Esan beařik eztago nork jasoko zituan.

Gertakari onek du
ederki azaltzen,
guzia nai duanak
guzia du galtzen.



P R A K A Z A R

I

¡Ai Prakazar, Prakazar gizajoa! Etzuan izen auxe bere gogokoa, baña izenaren jabe zan, eta aditu bear izaten zuan. Praka beñi batzuek egiteko ainbat diru eziñ auferatu izan zuan beñere. Ardo askotxo bear izaten zuan eta...

Esaten zioten lagunak, ardo gutxitxoago edan ta badare, obe zukeala praka beñi batzuek egitea. Baña erantzun oi zuan, apoñu ona zala gauza beafa eta ardo zala apoñurik onena; apoñu gabeko efopa laster ondatzen zala, eta baita apoñu gabeko gorputza ere. Don Akilino medikuak ikusi omen zion eñαιο X akin bere bañua, eta zagibatena, au da, pikez apoñatua omen zeukan. Beragatik ez omen zuan mikrobioen belduñik, bere bañuak urik artzen etziolako. Praka zañakiñ ibiltziak etzion lotsarik ematen; baizik izen ori aditzeak.

¡Ola, Prakazar!; ¿zer modu, Prakazar?; adio, Prakazar; kaixio, Prakazar... Ta mundu guziak Prakazar esan bear berari. ¿Ez ote zan munduan beste prakazardunik? ¿Bera bakañik ote zan?

Egun baten koñioak ekañi zion eskutitz bat, Señor Don Prakazar estalkian zeukana. Idiki zñan, baña irakurten etzekian eta eman zion bere lagun Joseri irakurtzeko. Konde batena zan, eta esaten zion antziñako gauza zañak biltzen zebilela. Aditu zuala bere prakak ba zituztela beñeun urte, eta saldu nai ba zizkan, egingo ziola burutik beatzerañoko soñeko beñi bat. Laister egin ziran tratuak. Praka zañak aruntz eta soñeko beñia onuntz.

Prakazarak soñeko

beñiaren truke...

soñeko edeña du

etxeratu merke;

orain tituloren bat

gañera nai luke:

laister egingo dute

Markes edo Duke.

II

—Manu.

—¿Zer nai dezu?

—¿Nor degu jaun aiñ apaiñ ori?

—¿Eztezu ezagutzen?

—Ez.

—¿Ezetz?

—Ez, gizona, ez.

—Makiña bat aldiz ikusi dezu ba. Begira zaiozu ba ondo.

—Berdin da ba; eztet ezagutzen; egundaño ikusi eztedala deritzat.

—Ez aropa oiek, baña abituak ezte egiten prailea. Ori dezu Prakazar.

—¿Prakazar dala?

—Bai, Prakazar berbera.

—Eztaukagu ezer esateko.

—Ba, ixilik egon.

—Bai, eñaz balitz.

—Ixilik egotea eñezago da, ondo itz egitea baño.

Etzan eñan eta ez erbestean Prakazar aotan artu bear etzuanik, eta praka beñiak jantzitare, Prakazar aditzeak miñ ematen zion; eta sinisterazi zioten periodikak ere bera aotan artzen zutela.

Dolopoldo (Don Leopoldo) ari zan paper oietako bat irakurtzen eta Prakazar eskututik aditzen bere ize-
nik aitatzen ote zuan:—Ha debido «fracasar»... y «para
cazar»...

Ora or—esan zuan Prakazafek—nere izena pape-
retan, baña eztidate burlarik egingo. Bialduko diot nik
kondiari nere soñeko beña eta berak bialdu degizkida-
la neri nere prakazafak, eta Mariñasiri idazteraziko diot
eskutitz bat onela:

Siñor konde de Azares
mandamuste Prakazañes
para mandar traje nuevo
después io más luego.

Seguro serbidor apetisimo,

Dantalón Viejo



MOSKOR-GERTAERAK

I

Moskorturik oera
zaigu PATXI Jauna,
laister jaiki da galdez
¿nun dago komuna?
leku arotza eta
gabare iluna,
komuntzat artu digu
leyo balkoiduna.

II

Bereala asi zan
leyotik kalera,
euria zar-zar-zar-zar
plaza egalera...
Gentia preskura artzen
zegoan aldera...
Mariri zuzen zuzen
bere magalera.

III

Kalian pasatzian
Joshe mutur motza,
moskor edere ez etzan
iñon ere lotsa;

aditu zuanian
euriaren otsa,
guardasola zabalik
asi zan aruntza.

IV

Zuloz betia zeukan
guardasolak tela,
diyote aratoyak
zulatu dutela;
laister bustitzen zayo.
Josheri txapela...
baña euri ur ori
oso da epela.

V

Galai bat bere dama
arturik besotik,
bere ustez dotore
zijuan zut zutik;
PATXIREN balkoipean
txit zuzen losatik
aprobetxatu ziran
ituñi gozotik.



MUTIL ARGIA

—Ola, Patxi! ¿Agertu al gera?

—Bai, Mañasi.

—¿Zenbat denbora igaro dezu soldadutzan?

—Iru urte.

—Ederki da. ¿Eta ezer ikasi?

—Bai ta erakutsi ere; atera ezazu baso bat ardo.

—Oña or, ar zazu.

—¿Klareta al da?

—Ez; napaña.

—Naiago nuan ba klareta.

—Ekatzu ba atzera ta oña or klareta.

Edan zuan kinkada baten, eta ezpañak igortzi ta jagur! esan eta juatera abiatu zan.

—¿Eta ordaiña (pagua)?, galdetu zion Mañasik.

—Eman dizut ardo napaña.

—Ez ordia pagatu.

—Ez ba, ez det edan ta...

—Auxen da kontua (esaten zuan Mañasik) napaña eztualala edan, klareta napañaren ordaiñez eman diodala; ¿eta nik baso bat ardoren galeran gelditu bear al det ba?

—Bai, onela dira oraingo legeak: galde bestela zure senafari...

Juan zan Mañasi Martolori deitzera, eta atzera bi-urto zaneke ezkutatu zan Patxi, baña arkitu zuan paper bat idatzirik onela:

«Mañasi bear dezu
gauza bat ikasi,
nai nizukeana nik
emen erakutsi;
soldaduakin ondo
nai badezu bizi,
gauza eman baño len
aurez pagerazi.

JAUREGIKO GAZTAÑAK

I

Gabon eřegaluak
nere lagunai,
ona non dizkiedan
ekaři danai:
jankai ona da baña
ala ere nor nai
kontuan ipintzen det
egon dedin ernai.

II

Ona emen gaztañak
jan, nai dan guzia,
ezta gero faltako
atzetik aizia:
eta plit-plot-ka beřiz
atake luzia,
ařiskuan jařiko
diguna bizia.

III

Tripa ezpada jartzen
lasterxo utsikan,
soñuak joko dira
ederki musikan:
agertzen bada beřiz
iñondik eizikan,
tiro bat ere ezta
irtengo utsikan.

IV

Ezta faltako ere
kia ta luřuna,
usaia kiratsa ta
bařuko iluna:
baña au guzia da
naikua biguna,
bakařikan suduřa
minduko diguna.

V

Aize kontuan beřiz
ez asi indarka,
bada lanbide onek
ařiskua dauka:
zikintzeko pinturaz
atzetikan praka,
zeren bere ondoren
agertzen dan kaka.

IV

Orain nai ba dezute
jatia gaztañ ok.
aitzakirikan eman
eztezala iñork;
ustelak kendurikan
ona emen piñok,
Mendarotik dakarzki
Esteban Eginok.

MODA ZAÑA BEÑITUA

- Izan omen zera Donostian, Lukas.
—Izandu naiz, bai.
—¿Eta zer iritzi diozu?
—Aditzia ba nuan donostiafak Josemaritafak zirala, ta izan ere bai.
—¿Nola ba?
—Lujua ba zala esaten zidaten Donostian, eta ala iduritzen zait, baña beste gauza bat ere iduritzen zait.
—¿Zer ba?
—Lujua ta pobreza elkañen urian ote dabilzan....
—¿Nola ba?
—An ikusi nituan iru edo lau nexka xostor...
—¿Apainduak?
—Bai baña eskas antzian.
—¿Zer zuten ba?
—Soñeko edefak bai, baña oso motzak; belaun bu-ruetaraño bakafik eltzen zitzaizten, eta andik beeralkoa goñirik. Obe zuketen soñeko merkeagoak eta luzeagoak egitea.
—Ori baño ezpada...
—Baña geiagore ba da.
—Ea ba zer?
—Emakume sasoekoak....
—¿Apainduak?
—Bai, baña beren besoak goñirik, eta lepuak ere bai.
¿Elitzake askoz obe, jantzi merkeagoak, baña gorputza obeki estaliko luketenak egitea?
—¡A Lukas gizajoa!; ori oraingo moda dezu gizona, moda beñi beña.
—Ala usteko dezu zuk eta baita Josemaritafak ere.

- Bai ta mundu guziak ere.
- Mundu guziak, ez. Ni ere mundukoa naiz beñepeiñ, eta nik ez tet ala uste.
- ¿Zer uste dezu ba zuk?
- Moda ori, moda badare, ez tala oraingo beña.
- ¿Zer ba?
- Modarik zañena.
- ¿Zaañena?
- Bai, zañen zañen, zar guzien artian zañena.
- ¡Jaaa=jai !Oraindik geiago adituko degu.
- ¿Nai dezu aditu?
- Esaten ba didazu....
- ¿Ba dakizu Adanek eta|Ebak zer soñeko zuten Jaungoikuak egin zituanian?
- Zuk eta nik jaiotzean genduana.
- ¿Eta gero pekatu egiñ ondorean?
- Ori nik ez takit: baña....
- Zuk ez padakizu, nik esango dizut. Piku arbola baten oñiak artu, josi ta jantzi ziran.
- ¿Jostunik bai al zan orduan?
- Berak ziran jostun.
- ¿Ondotxo josi ote zituzten?
- Gorputzaren alderdirik beañenak estaltzeko laiñ.
- ¿Eta gañerakoak?
- Gaurko modaren antzera.
- Gizon jakintsua zaude.
- Bai, sermoi baten aditu nuan.
- ¿Nori?
- Egiak zarta-zarta esaten zituan Praile bati. Penitentziaz emango balitzaie moda ori, esaten zuan Praileak-laister esango lukete, ezin lezaketela, baña deabruari atsegiñ emateagatik....
- Eztezazula esan, gizona, ofelako gauzarik.

- Nere esana ezta, baizik prailearena.
- Gauz oiek ikusteko etzenduan Donostiara juan bearik.
- Enintzan juan oiek ikustera, nere ustetan.
- Erian bertan ere ba dituzu ofelakoak.
- Kale aldian izango dira nunbait, beñepein gure baseñietan ez tet ikusi.
- Ikusikore ez, kalera maizago etortzen ez pazera.
- Nai ere ez etofi, gauz oiek ikustekotan.

Gogoratzean praile.

Juani aditua,
 dirurizu zaudela
 zerbait lañitua.
 Ni beñiz ikustian
 nago añitua,
 modarikan zafena
 oraiñ beñitua.



Zendoya.

DANTZA BÉRIA

Erdal éritik agertu zaigu
dantza jenero beña,
izan bear du, dirudienez
moskofen batek jaña.
Baltsa du izena eta
oso da nazkagaña,
begiratzeak bakarik ere
eman lezake laña.

.

Moskofak zutik juateko
oi du laguna albuan,
dantzatutzeko begira nola
biritan bearko duan:
mutil ta nesktx alkari eldurik
bukurien moduan,
alare beren ustean ezta
formalagorik munduan.

.

Gira ta bira zoroen gisa
baña pausua nafasa,
ao batetik bestera érez
dijoakie arnasa:
batek gaitzikan ba du
izango dure besteak araza,
alkari gaitzak egotzitzeko
ora bide txit araza.

.

Lastima ere ezta txikia
danen arpegi leunak,
malaskatzea bizar zatafáz
beren dantzari lagunak:
ori guzia egiten dute
lotsa gutxiko zaldunak,
baña merezi ere bai dama
buru ariñ ta auldunak.

.

EMAKUMIA, jakin ezazu,
sañi ba zabiltz baltsian,
jartzen zerala nolabaiteko
emakumeen klasian:
aúretik eder egiñagatik,
izango dira atzian
guraiza zofozt kras-kras egingo
dutenak zure jantzian.

.

Nere iritziz balsio zale
dan emakume gaztia,
nai ezpadure senar-gai gabe
geldituko da tristia:
mereziko du, usai eginta
danak albora uztia,
santuak jazten igaro dezan
bere bizitza guztia.



AITA SEMEAK

—Seme: ¿askotxo ikasi al dezu?

—Askotxo ez, aita, baizik asko.

—Ori bear degu ba, ta ea ba jakinduri apurtxo bat erakutsi guri ere.

—Nik ba dakit birekin iru egiten.

—Nik ere bai.

—¿Nola?

—Bietako bat erdibituta.

—Baña nik erdibitu gabe.

—¿Aurtean dauzkagun afaultzak auekin iru egingo zinuizke?

—Bai, ta ezaz alare.

—Ea ba erakusten diguzun aurtekoan olo gutxia-go bear izan dezagun.

—Aritu ba ondo.

—Baita pozik.

—Begira, aita. Bi dauden lekuan bat badago.

—Alaxe da.

—Bidauden lekuan ¿ba daude bi?

—Baita.

—Beraz bi dauden lekuan badago bat, eta badaude bi ere.

—Baitare.

—¿Bat eta bi zenbat dira?

—Iru.

—Beraz bi dauden lekuan, ba daude iru ere, eta bi afaultzak auek dauden lekuan ba daude iru ere, ona emen ba nola nik afaultzak birekin egin ditudan iru.

—Guziz ondo da: eta orain, lenengoa jango du amak, bigarrena nik, eta irugarrena zuretzat geldituko da.

Ezta luzitu bere
jakinduriakin,
oraindikan geiago
bearko du jakin:
ikasten asi bedi
maisu on batekin,
geldi eztedin aoa
bete agiñekin.



ANDRE MOSKOŔARI

I

Zenbait trabaju ba du
gizonak munduan,
bizi ba da andre txar
moskoŕen onduan:
saŕi ez daŕkiela
burua nun duan,
gu ere bizi gera
al degun moduan.

II

Andra Mari guriak
orduán orduán,
pentsamentua dauka
jaŕia arduán:
iluntasun triste bat
saŕitan baŕuan,
medikugabe dakit
ark zer biar duan.

III

Baulian gordeak
beŕogei botela,
onak dira kentzeko
estomauko ila:
gauza guzietako
du buru abila,
batez ere korneta
jotzen da mutila.

IV

Goizian jaiki eta
lenbiziko lana,
kornetarekiñ zoli
jotzia diana:
ba dijua esanaz
gizonarengana:
«tristura da azkenik
galduko nauana».

V

Kaliak bear ditu
osoro zabalak,
luzituko ba ditu
andra Marik galak:
aŕastaka dabiltzki
gonaren egalak,
gorputza eziñ zaituz
jai! ¡zer eguiñalak!

VI

Zapata eta bota
guziak berdiñak,
jaiotzerako ama
beriak egiñak:
gañerako aŕopak
ez dira txit piñak,
baña bai zarpail zaŕen
antzeko zikiñak.

VII

Urari daukakio
 gofoto bizia,
 zergatik andik sortzen
 dan hidropesia:
 ez probatzeko digu
 egiñ kurutzia,
 bañan ardoa zufut
 al duan guzia.

VIII

Uraren bilduñez dan
 bezela arkitzen,
 ez du arpegi eta
 eskurik garbitzen:
 lanikan asko ba du
 ganaduak iltzen,
 ezin dueneraño
 ez bada orditzen.

IX

Saltzen ditu zapatak,
 gona ta atofa,
 bereganatutzeko
 taberna jatura:
 ixildu eziñikan
 diruri kotofa,
 ez du mozkoñik baizik
 buruko tontoña.

X

Txukuna izan afen
 beti dabil zikiñ,
 kumunera biderik
 ezdu bear jakiñ:
 ariya datorkiyon
 leku bertan eguiñ,
 lixiba or darabil
 aldian berekiñ.

XI

Ez nioke kendu nai
 andreari pama,
 zergatik dan gaixoa
 sei umeren ama:
 ordu bat eziñ pasa
 edan gabe «mama»,
 laister aberasteko
 plan ona darama

XII

Esperantzarik ez det
 oraindikan gaidu,
 laister ontzen ez bada
 bearko det saldu:
 nunbait aseferikan
 jasoko ez aldu,
 erosi nai duana
 nigana azaldu,



JOXEPIÑAXI

(Aizia buruan
eta ibili munduan)

I

—Joxepiñaxi.

—¿Zer nai dezu ama?

--¿Zergatik daukazu ofelako egafia, Donostira juateko?

—Ba dakizu ba; gaztiak beti nai du erdera apurtxo bat ikasi edo...

—¿Eta erdera ikastera Donostira? ¿Euskaleñira?

—Bai ama, Donostin euskera eze, erderaz egiten omen dute, ta erdera beñiz seda bezela piñ-piñ...

—¿Eta serbitzeko etxia topatu dezu?

—Bai; ta ez nolanaikua; konde batena.

—¿Bai aldakizu nun bizi dan?

—Baita.

—¿Nun?

—Zortzigafen bulebañian.

—Nik baño geiago dakizu; enuan uste Donostin zortzi bulebar ziranik.

—Ona emen eskutitza; ara nola dion: Bulebar 8.

—Eta zuk ofenbeste erdera jakin. ¿eta oraindik geiago nai dezu Orbeldin bizitzeko? Gutxiagorekiñ bizi gera.

—Orbeldiñ bizitzea ezta premiazkoa.

—Ezta Donostira juatia ere.

—Ba ni bigar juango naiz.

—Bai etofí ere beñogeita zortzi ordu baño len.

—Ikusi ta sinistu, eta Jaungoikuak gabon dizula.

Ez egotiagatik
amaren onduan,
Donostiara nai du

nere alabak jua.
Eta ba dakit ziur,
zer egingo duan;
Aizia buruan ta
ibili munduan.

II

—Agur ama; orain ba nua, eta nere abarkak eta trapuak efe itzatzu, gogoratzia ere eztit onik egiten da.

—Oraindik beñiz ere oiek jazteko premian arki zindezke ba, gaixo ori.

Biletia artzako denboran esan zion Jose Marik, obezukeala artzea jua etofikoa.

—Ez orixe-erantzun zion Joxepiñaxik.

—Lau eguneko epe edo plazua daukazu, emakumea.

—Berdiñ da, urte betekoa ba leuka ere; ez tet uste aiñ laster biurtzerik.

Donostira eltzian, asi zan zortzigañen Bulebañaren galdez, eta etzion iñork ematen beñirik, baña eraman zuten Bulebañera. An zebilen, kondia nun bizi ote zan galdez.

—¿Zeiñ konde?

—Don Ermijio.

—Baña ezin atera zuan aztañanik. An azaldu zan kartero bat. Oni galdetu zioten, baña onek ere etzuan beñirik ematen.

Joxepiñaxik atera zuan eskutitza, eta irakuñi zuan karteruak; izen edo firma zeukan «Remijio Konde», eta esan zuan:

—Au ezta oraiñ emen bizi, baña atoz nerekiñ, eta erakutsiko dizut.

Joxepiñaxik esan zuan bere artian:

—Zortzigañen bulebañan biziko da.

Bidian zijoazela, galdetu zion karteruak Joxepiñaxiri:—¿Senide al dezu Konde?

—Ez jauna; gu pobriak gera kondeen senide izateko.

—Emakumea, berare ezta izango aberatsagoa, Konde izengoiti (apelidua) ba dauka ere.

—Nik eztaikit zer dan.

—¿Eztakizula?

—Ez.

—Ba barkilerua da.

—¡A!; artilerua ba da, agintarietakoa izango da.

—Eztizut esaten artilerua.

—¿Zer ba?

—Baa... ar. . kilerua.

—¿Barkilerua?

—Bai, barkilerua.

.
Joxepiñaxi gelditu zan non zegoan etzekiala...
Egundoko lasteren Donostiko aldiak egiñ zituan;
gaberako etxeratu zan, eta bigaramonian abarkak jantzi
ta lanera; umil umil egin ta, atzera lanera.

III

Gazte buru ariñik
iñun bada bizi,
Joxepiñaxi gandik
dezala ikasi.
Zer gertatuko zaion
nai ba du ikusi,
ispilu bat edefa
or Joxepiñaxi.

Posdatan:

Konderen izenez Joxepiñaxik artu zuan eskutitza
Jose Marik egiña omen zan.

ARDI ERENA

I

- Kaixio, Kelemete.
—Kaixio, Anakoletto.
—Ez naiz ni Anakoletto.
—¿Zer ba?
—Kle... Kle... Kle. Anakletto.
—Ezta nire Kelemete.
—Beraz bick gera Kleak.
—Bai, tokaioak.
—Zuk ba dakizu ba gauza bat.
—Bai, bat baño ezpada, uste det baietz.
—Bai; zuk ba dakizu, ni gizon tajuzkoa naizela.
—Ori enekian; uste nuan, gu bezelaxe aragizkoa ziñala.
—Nai nuke esan, nik ba dakidala, gauzari bere itxura ematen.
—Gauza guziak dute beren itxura, zuk eman ga-bere.
—Oso pilosopoa zaude noski.
—Ba liteke; itxuen erian, begi bakara izaten omen da alkate ta...
—Eta alegia: ¿begi bakar ezagutzen dezu?
—Azaletik bai; barutik ez.
—Nik ezagutzen nuala uste nuan, baña...
—¿Eta zer?
—Ezin ulertu det gauza bat.
—¿Zer da ba?
—Len aiñ ona zan eta orain aiñ gaiztoa; aldaketa (mudanza) ori nola ote dan...

—Izango du aŕengoren (causa) bat.

—¿Baña zer?

—Zerbait.

—«Zerbait» orixe da ba nik ezagutu nai nukeana, ta ezin dedana.

—Zerbaitere izango da.

—Kofilo zaŕak esan oi zuan «zerbait» en gaitz guziak urdaġera jotzen zutela.

—¿Ba al dakizu antziñako ardi eŕenaren beŕirik?

—Ez.

—Aditu ba. Ardi eŕen bat zegoan artalde batian, eta bestiak sororen baten sartzen ziranian, bera nai izan aŕen sartu eziñ, eta deadarka asten zitzaien: «kontzientzia, kontzientzia» esanaz.

—¿Zergatik ote?

—Jan etzezaten. Baña egun batian bera ere sartu zan eta orduan «aŕas», «aŕas», deadar egiten zien.

—¿Zer esan nai ote zuan ofekin?

—Zearo jateko sustraietaraño. Aaria asi zitzaion ardi eŕenari eŕietan, esanaz: «kontzientzia» deader egiten zenduan atzo, gu kezkatan jartzeraño, eta gaur «aŕas». ¿Zer aŕengo dezu ortarako?

—Ara ba, jauna-erantzun zuan apal apal (umil) ardi eŕenak, -nik ba det nere aŕengoa.

—¿Zer ordia? aariak.

—Zerbait ere bai (ardiak)

—Zerbait orixe jakin bear det ba nik.

—Zerbait orixe enuke ba esan nai.

—Ba esaten ezpadidazu, burukada batekin lertuko zaitut.

—Ara ba, jauna, bedoŕi bakaŕik esango diot; urdaġa oso biguña det, janari ona eskatzen dit; beste lagunak jaten ikusi ta ni goseak, etzidan on andirik egiten.

—Eta beñ sartu zifanetan, ¿ba zendukan ba ixilik jatea baño?

—Bai, jauna, ori ofela da, baña, bestiak ni baño azkafago ziran, eta onenak jan ta aufera, ondokiñak beti neretzat gelditzen ziran, eta nere urdalarentzat etzetofen ondo.

—Beraz zure «zerbait» ori urdala da.

—Bai, jauna.

—Bai beste askorenare (esan zuan aariak).

.

II

—¿Aditu al dezu Anakleto ardi efenari zer gerta zitzaion?

—Aditu det.

—¿Begi bakafen antzik ote du?

—Begi bakar eta bikoak, eta ustez azkafak diranak ere ba dute ardi efenaren antza.

—¿Zertan?


—Urdalean.

I

Lurbir onetan gauden
gizon asko mila,
beti gabiltza emen
zerbaiteren bila.

II

«Zerbait» au zerdan ezta
ezagutzen zala,
geienian dalako
izaten urdala.



PERU TA PEDRO

(Arotzen dana, umilduko da)

I

Bi gizon auek, beren eretik bi leguaz beñere alden-
du etziran, eta alare beren itzaldietan beti itz egingo
zuten Paris, Londres, Merlin (Berlin) eta onelako uri
aundien gañian; baña beñere etzetozen ondo elkarékin.
Batek zuria esaten ba zuan, besteak beltza esango
zuan; gaur zuritzat ematen ba zuan Peruk, eta biyar
beltzat gauz ura bera, Pedrok emango zuan gaur bel-
tzat eta biyar zuritzat.

—Peru:-esan zion bein baten adiskide batek, ¿nola
da gaur zuritzat daukazun gauza, biyar beltzat idukitzea?

—¡Ai! zuk eztakizu oraindik; baña munduak ogei-
ta lau orduan, buelta aundia egiten du.

Eta ¿nola da ba zu ta Pedro aiñ jakintsuak izan,
eta alare beti alkarékin ondo ez etortzia, zuen iritzietan?

¡A gizaajoa! jakinduriak maña asko ditu: ez gera
guziok berdiñak jakindurian.

.

Jai goizetan meza aurretik elizpian beti izan oi zu-
ten ezta-baidaren bat bi gizon auek, eta auzoera arta-
ko jenteak ardura aundiagoaz aditzen zituzten aien esa-
nak apaizaren sermoiak baño: eta batek eta besteak ba
zituzten beren aldeko eta partidarioak. Ba ziran Peruta-
rak eta Pedrotarak ere. Apaizaz ostean aiek ziran gizo-
nik jakintsuenak; baña oien eztabaidak erabakitzen, apai-
zak izaten zuan naikua zer egin, guziakingoa ondo iduki
nai ta. Urte baten biak auzoerako Alkate nai zuten izan,

eta gogor samar asefetu ziran, eta jenteak erabaki zuan bien artean jakintsuena alkate egitea.

Aizak, Pedro.

Zer nai dek, Peru.

I jakintsua aiz, baña benturaz ni anbat ez.

Izan litekek baña.....

¿Zer baña?..

Etzekiat ba.

¿Napoleon en aditzerik ba dek?

¡Izango eztiat ba!

Eta ¿Esparteronik?

Baita.

Eta ¿oiiek anayak ziranik?

Eztiat aditu egundaño.

¡A tonto aundia! Alkate izateko ez ago txaña.

Mindu zan oso Pedro eta kimeratu ziran Perutañak eta Pedrotañak; apaizak izan zuan lan ikasko aiek pake-tzen; eta esan zien biak zutela añañoia; anaiak ziala ta etzirala, au da anai erdiak; eta ara nola: bi amarenak zira-la baña aita batenak ez. Ziria ederki sartu zan; biak gelditu ziran añañoiarekin eta jakindurian berdin.

Jakinduririk asko

biak ba daukate,

biok egin bearko

ditugu alkate.

Bada oraindik juango

zaie eun urte,

baña beude patxaraz

au iritxi arte.

II

Pedro etzan gelditu satisfazio osoan. Anai erdiak

ez dira anaiak, baizik erdiak, esaten zuan. Baña Peruk erantzuten zion: erdiak bai, baña anaiak.

—Egia da bi amarenak izanik ere izan ditezke anai erdiak, eta aita batenak izan ezta ere bai; baña..., zion Pedrok, eta beti baña ortan gelditzen zan.

—Dana dala, esan zuan. Apaizak ala esan du ta ala izan dedila.

Baña Pedrotarak etzeuden ortarakoxe; eta jaiki zan eñian naspila aundi bat; eta azkenik erabaki zuten San Juan atsaldian dantzan ondoen egiten zuana alkate izateko.

—Konprome, esan zuten biak.

San Juan eguardian ondotoxo, ta ondotoxo baño geiago, ondo ta ondo baño geiago, ta geigi bazkaldu ta, atera zan dantza-soka, Pedro auresku ta Peru atzeskuan. Zutikan bai, baña «eseak» egiñaz. Jo zioten erdirako edo desafioa, kabriola bat egin nai ta ankarik jasoz ezin.

Elkafen aures aures jañi, zabu egin eta aariak bezela tope egin, eta erori ziran biak luera.

Gurdi banatan eraman zituzten bakoitza beren etxera, eta eñi guziak, gaur esango litzaken bezela, «deskalifikatu» zituan, eta paketu zan.

Etzuan geiago inork alkategintzarik aiatu.

Afoak beti dira
afotxo ibiltzen,
beren buruentzako
sari laiak biltzen.
Afokeriz beterik
ez dira ixiltzen,
baña oñela dira
afoak umiltzen.

SENAR EMAZTE MAITEAK

Maite nuan nik nere
emazte-gai Ana,
aiñ maite nun, nukean
pozik jango dana:
ezkondu eta gero
inik daukadan pena
ezkondu aurretikan
bizirik ez jana!

Jan izan ba ninduzun
orduan bizirik,
enintzan egongo gaur
ezufak ausirik:
baldin nizaz ba zaude
aspertzen asirik,
kokoteraño nago
ni zuzaz aserik.

Ezkondu aurretikan
otsik asko ba zan,
gero ondo izango
ziran esperantzan:
eta oña orain or
zer lañi dabilzan,
ikasi eziñikan
ondo makil dantzan.



ARKI-BIDEA

Oñaldeak

Itz auñea.	3
Bere jauparitzako uñezko eztaietan D. Pedro Miguel	
Uñutzuno jaunari	5
Kilimongo ituñi edo eñeka.	7
Ijitoak	11
Apustu motza.	14
Ijituak	17
Astua gaxorik.	22
Ijitua pazkoakuan	24
Arduaren bentajak	27
Ijituak	29
Andre moskoñari.	33
Beñiz ere ijituak	35
Ijitoak	38
Neska zañak	42
Ijito baten pazkoakoa	43
Biyak añazoia.	46
Ontzuñea	49
Kaiku.	53
Anton eta Martiña	57
Kapelamaiña	62
Lesakan.	67
Senar emazteak	70
Sendagiñea.	71
Alkandora bat.	76
Eñoke ta Peñoker.	79
Eupariya.	83
Joaneren joan etoñia	87
Asto plauterua.	95

Gezur ontzi	98
Zirikilote sasi letraua	102
Peñatzañe medikua	106
Makiñe	111
Praisku zañaren kontu beñiak	114
Axeri ta Txori.	117
Mutiko ernaiak.	119
Mutiñ zañari.	122
Guzia nai duanak, guzia galdu	123
Prakazar.	124
Moskor gertaerak.	127
Mutil argia.	128
Jauregiko gaztañak.	129
Moda zaña beñitua.	130
Dantza beñiak.	133
Aita semeak.	135
Andre moskoñari.	137
Joxepiñaxiri.	139
Ardi eñena	142
Peru ta Pedro.	145
Senar emazte maiteak.	148
Arki bidea.	150



Saneur'ia 2 laurleko